

**Artea, kolektibotasuna
eta desira**
**Arte, colectividad y
deseo**

[Artea,
kolektibotasuna
eta desira]

[Arte,
colectividad
y deseo]

erraiak





Distantzia pixka batekin baina ziur jakinik ezen gertatu zenak taupaka jarraitzen duela gure barruan, gustatzen zait pentsatzea organismo bizi bat dela *erraiak*. Hasieratik antolatzen ari-tuta, ikusi dut nola edizio bakoitzarekin bere forma hartzen duen eta biziberritu egiten den, eta besteak beste horregatik garatu nahi izaten ditut proiektuak modu honetan, gertatzen zaigunarekin engaiatuta, nahiz eta batzuetan halabeharrez izaten den modu kaotikoan eta ziur aski apur bat desorekatuan, unean uneko ba-besaren arabera; babes materiala zein pertsonala. Edizio honetan buru-belarri aritu ahal izan dut programa prestatzen, arte-proiektuen ekoizpenerako diru-laguntza batzuk jaso ditugulako, eta proiektuaren ekonomiari buruzko xehetasunetan sartu gabe, horrek ekarri du, neurri handi batean, proiektua gauzatu ahal izatea eta argitalpen honetan testu hauek argitaratzea.

EDITORIALA

Editorial

Con cierta distancia aunque con la certeza de que lo que pasó nos sigue latiendo, me gusta pensar *erraiak* como un organismo vivo. Planeando su organización desde el principio, observar cómo cada edición toma formas y vida propias es una de las razones que me motivan a poner mi entusiasmo en desarrollar proyectos de manera comprometida con aquello que nos pasa, aunque a veces tenga que ser de manera caótica y probablemente algo desequilibrada, según sean los apoyos recibidos en cada momento, tanto materiales como personales. En esta edición he podido dedicarme al programa sostenidamente gracias a varias ayudas para la producción de proyectos artísticos que lo han posibilitado, y, aunque sin querer entrar en detalles sobre la economía del proyecto, esto ha marcado en gran medida su posibilidad de concreción y los textos que confluyen en esta publicación.

Azken hilabeteotan neure buruari egin dizkiodan galderak, bada, ezohiko egoera horretatik jaio dira —kultur lan independentean aritu bainaiz soldatapean—; egoera ezohikoa da, batez ere, kontuan hartuta oso muga lausoak daudela lanaren beraren eta hori gurutzatzen duten aktibismoen artean. Salbuespen-egoera horrek, nolana ere, modua eman dit tarte horretan indarrak eskaintzeko orobat lan-taldeei, militantziei, kolektiboek eta beste batzuekin ehundu ditugun sareei. Horrenbestez, oso maiz artistok, aktibistok, hezitzaileok eta egunerokoan aldaketa handi zein txikiak bideratzen ditugun bestelako bitartekariok geuretzat jotzen dugun jardun hori modu ez hain prekarioan heltzeko aukeratik abiatuta, erabaki genuen gogoeta egitea aztertzeko zerk eusten eta mugitzen gaituen artea, kritika soziala edo kulturala egiten jarraitu dezagun, bai beste batzuekin partekatzen dugunean, bai eta inork begiratzeko ez digunean ere. Are, egoera erosoago honi esker, hots, hemen eta orain eraldaketa batzuk ahalbidetzeko edo sostengatzeko denbora edukitzeari esker, beste kontu batzuetan ere sakondu ahal izan dugu, hala nola zerk hurbiltzen gaituen desirara, plazerera, lantzen ditugun praktika kolektiboek errai hutsera:

zerk mugitzen dizkigu tripak elkarrekin dihardugunean?

zerez eginda daude gure "barneak", gure egiteko moduak?

zer gertatzen da kanpoan, ekosistema baten

parte gisa harremantzen garenean?

Gutxi batzuei bakarrik mesede egiteko gaitasuna duen arte-sistema menderatzaile baten etsaitasunaren aurrean, non egiten jarraitu ahal izateko araua lehiatzea baita, eta ez hainbeste partekatzea, goiko galderentzako erantzun batzuk bilatu ondoren, argitalpen honen asmoa da hainbat ikuspegi alternatibo biltzea, egiteko eta elkar topatzeko beste modu batzuen irudimenari denbora eskaintzen jarraitzeko, aurreko hilabeteetan landutako ideia batzuen gainean hausnartuz eta eskuragarri jarri. Egiteko modu horiek zerkusi handiagoa dute honako hauekin: elkartrukearekin eta denbora elkarrekin pasatzearekin, jendearengana beti konektatzeko gogoz iristearekin eta ezustekoari irekitzen zaizkion prozesuekin, izan ere, egoteko beste modu batzuk eta beste mundu batzuk irudikatzen aukera ematen dute. Norberaren jardun artistikoaz ezer jakitekotan, ondotox dakigu zein ezinbestekoa den probatzea, esperimintatzea edo huts egitea, eta, horrekin batera, hegemonikoa problematizatuko duten iruditegiak proposatzea.

Egiteko modu zehatz hauei erreparatzeak, *erraiak* programaren bidez, honako hau ulertarazi digu: baldin eta ongizate kolektibo bat lortzea bada hainbat aktibismoen asmo politikoa, eta praktika artistikoa, berriz, ezarritakoaren aurrean esperimintazioa bultzatzeko salbuespen-egoera bada, biak ere elkarren osagarri izan daitezke eta, zergatik ez, elkarri babesa eman diezaiokete. Korrespondentzia horretaz jabetzeak geure burua ekosistema baten zati gisa ulertzea garamatza, non gure gorputzak leku batean modu sentiberago eta haragizkoago batean egoteak ikaskuntza kokatu batera garamatza, zeinak gorputzez gorputz konprometitzen gaituen. Ezkutuko esperientzia horrekin lotuta mantentzea lagungarria zaigu lurralde batean bizitzearikiko konpromisoa hartzen: sendaketa edo babesa jasotzeko halako zaintza eta erantzukizun afektibo bat eskatzen duen ekosistema bat, gure gorputza edo maite dugun gorputza zaintzen dugun bezalaxe.

Gure esperientziaren arabera, geure burua ekosistema baten zati gisa ikusteak —egiteko nahia eta egiteko benetako aukerak orekatzeko aukera ematen digun ekosistema gisa— orobat ekar dezake lan horren baldintzetan arreta jartzea. Hala, ekologiaren definizioari erreparatzen diogu: organis-

Las preguntas que me he ido haciendo a lo largo de los últimos meses han surgido en esta situación inusual de poder dedicarme al trabajo cultural independiente de forma remunerada, sobre todo cuando los límites entre ese trabajo y los activismos con los que se cruza son tan difusos. Una excepción que sin embargo me ha permitido durante este tiempo poner las fuerzas en apoyar grupos de trabajo, militancias, colectivos y redes que hemos ido tejiendo junto a otras. Por eso, desde esta posibilidad menos precaria de hacer una labor con la que nos identificamos tan a menudo entre artistas, activistas, educadoras y demás facilitadoras de pequeños o grandes cambios en nuestro cotidiano, decidimos reflexionar sobre aquello que nos sostiene y nos mueve para seguir haciendo arte, crítica social o cultural, cuando compartimos lo que hacemos con otros, pero también cuando nadie está mirando. De hecho, esta situación más cómoda o desahogada que de costumbre, de disponer de tiempo para posibilitar o sostener algunas transformaciones aquí y ahora, nos ha permitido profundizar en aquello que nos acerca al deseo, al placer, a la entraña pura de las prácticas colectivas a las que nos dedicamos:

¿qué nos mueve las tripas a la hora de hacer juntas?;

¿de qué están hechos nuestros 'adentros', nuestros modos de hacer?;

¿qué sucede afuera cuando nos relacionamos

como parte de un ecosistema?

Frente a la hostilidad de un sistema artístico dominante que tiene capacidad para beneficiar solo a unos pocos, en el que la norma para seguir haciendo es competir más que compartir, la intención con la que ahora pensamos esta publicación tras una búsqueda de posibles respuestas a las anteriores preguntas comprende una serie de enfoques alternativos para seguir dedicando tiempo a la imaginación de otras formas de hacer y de encontrarnos, reflexionando y haciendo accesibles algunas de las ideas trabajadas en los meses anteriores. Formas de hacer que tienen más que ver con el intercambio y pasar el rato juntas, con llegar a la gente siempre con el deseo de vincularnos, con procesos que se abren a lo inesperado porque permiten imaginar otras formas de estar, otros mundos. Porque si algo sabemos acerca del propio hacer artístico es precisamente lo necesario de probar, experimentar o fallar, y con ello tal vez proponer imaginarios que problematicen lo hegemónico.

Fijarnos en estas maneras concretas de hacer nos ha llevado a entender con *erraiak* que si lograr un bien colectivo es la intención política de distintos activismos, y la práctica artística es un estado de excepción para favorecer la experimentación ante lo establecido, ambos pueden complementarse y, por qué no, apoyarse también mutuamente. Tomar conciencia de esta correspondencia nos lleva a entendernos como parte de un ecosistema en el que la presencia de nuestros cuerpos en un lugar, de una forma más sensible, más carnal, nos orienta en un aprendizaje situado que nos compromete cuerpo con cuerpo. Mantenernos aliadas con esta experiencia encuerpada nos ayuda a comprometernos con la vida de un territorio: un ecosistema que exige ser cuidado, que nos exige la responsabilidad afectiva que lo repare o lo proteja, tal y como cuidamos nuestro cuerpo o el cuerpo que amamos.

Desde nuestra experiencia, visualizarnos como parte de un ecosistema, uno en el que poder equilibrar el deseo de hacer y las posibilidades reales de hacerlo, puede traducirse también en poner atención sobre aquello que condiciona ese hacer. Esto nos lleva a fijarnos en la definición de eco-

moen eta haien ingurunearen arteko harremanen eta elkarreraginen azterketa da. Definizio horrek, berez, bereizi egiten ditu organismoak eta haien ingurua, eta, agian, definizio hori birdefinitzeko garaia dugu. Egiten duguna beste batzuekin batera kokatzean, mundua osatzen duten eta gure nahiei eta potentziei forma ematen dieten harremanak zaintzen ditugu. Beharbada, artista, ekintzaile, hezitzaile edo leku bateko biztanle gisa dugun zeregina, hain zuzen ere, gure ingurunearekiko eta lurraldearekiko interdependentzia-harremanak eraikitzea da, giza harremanekin eta gizakiaz haragokoekin bat egitea, harreman horiek indartzeko, bereizketara jo beharrean, zeina axolagabekeria bihurtzen baita maiz.

Gogoeta horien haritik osatu da argitalpen hau; halaber, galdera horiek ireki zaizkie beste gorputz gonbidatu batzuen erantzun posibleei. Datozen orrialdeetako testuek harremanak josten dituzte elkarren artean, eta ideiak, esperientziak eta fikzio espekulatiboak partekatzen. Ideia, esperientzia eta fikzio espekulatibo horiek bidea markatzen dute artea egitearen, desiraren eta bizitza kolektiboaren arteko balizko gurutzaketaren abaroan topo egiteko; izan ere, egileek ikuspuntu eta praktika desberdinetatik zeharkatzen dituzte gai horiek denak.

Ekainaren 8an, programa publikoa aparteko jai-aldarte kuir batekin itxi zen, oso gutxitan bizi izan dena espazio instituzionaletan, hala nola Iruñeko Ziu-dadelako Arma Aretoan. Aldarte hori eta halako tartetean partekatzen diren emozioetako batzuk “gora dantza behera” testuan deskribatzen ditu Danele Sarriugartek: beste gorputz batzuekin dantzatzeko eta elkarreraginean jarduteko poza, batzuetan zaugarritasun bihurtzen dena, une bizi horien ondorengo “beherakada” emozionalari aurre egiteko erronka, eta autoadierazpenerako espazio seguruak bilatzeko beharra.

“No quiero hablar de la fiesta, quiero hablar del tiempo” testuan, berriz, norberaren presentzia edo distantzia esperimentatzeko beharrezkoa den hauskortasun-erakustaldia ageri da. Izan ere, idatzi horretan, Perla Zúñigak —bihotzez eskertzen diogu erreferentea izan izana bizitza hau ospatzeko garaian— modu poetiko eta sakonean hausnartzen du denborarekiko bere harremanaz. Emozionalki biziak diren gertaera horiek denborazkotasunari buruzko bestelako ikuspegi bat erakusten digutela idazten du; ikuspegi hori bitan banatzen da eta moldagarria da, eta agian horregatik iragankortasunean babesa bilatzera eraman gaitzake, musikan eta festan ihesa bilatzen dugunokin batera, zaugarritasun-une horiek partekatuz.

Moldagarritasunaren esperientzia hori, kasu honetan moldagarritasun materiala (kimchiarena), Romina Casileren “Encastrémonos los dedos (y los deseos)” testuan jasotzen da, 2019an *erraiak* programaren lehen topaketetako batean izandako esperientzia pertsonal baten bidez. Memoria, desira eta komunitate prozesuen metafora gisa aipatzen da moldagarritasuna, sorkuntza kolektiboaren hauskortasuna eta plazera ospatuz, non gorputzak topaketarako eta erresistentziarako espazio bihurtzen baitira, egoteko modu bat sortuz, ekintza soiletik harago.

Egoteko modu hau Elena Olavek ere azaltzen du “Bihozkada ozeaniko bat” testuan, eta azpimarratzen du bere proiektu artistikoak beti egon direla lotuta, adiskidetasunetik harago, kolektiboki jarduteko behararekin eta elkarlanerako espazioen parte izateko behararekin. Metafora gisa funtzionatzen du bihozkada ozeanikoak, sorkuntza kolektiboaren prozesua ozeano dardartiarekin alderatzen baitu, mugitzen dabilen ozeanoarekin, indibidualismotik sortzeak dakarren basamortu isolatuaren kontrakarrean.

logía: el estudio de las relaciones e interacciones entre organismos y su entorno. Una definición que en sí misma separa a los organismos de su entorno y que tal vez sea momento de redefinir. Al situar lo que hacemos cuando hacemos con otras, atendemos esas relaciones que componen al mundo y dan forma a nuestros deseos y potencias. Quizás nuestro papel como artistas, activistas, educadoras o habitantes de un lugar consista justamente en optar por construir relaciones en interdependencia con nuestro entorno y territorio, sintonizar con relaciones humanas y no humanas para así reforzarlas, en lugar de adoptar una separación que, en tantos casos, termina en indiferencia.

La elaboración de esta publicación sucede a esta reflexión y estas preguntas, que a su vez se abren a posibles respuestas de otros cuerpos invitados. Los textos que vamos a encontrar en las siguientes páginas se relacionan entre sí, compartiendo ideas, experiencias y ficciones especulativas, que van marcando el camino para encontrarnos en torno a ese posible cruce entre el hacer artístico, el deseo y la vida colectiva, temas que los atraviesan desde los distintos puntos de vista y prácticas de los autores.

El 8 de junio el programa público cerró con una energía *queer* festiva extraordinaria y rara vez vivida en espacios institucionales como puede serlo la Sala de Armas de la Ciudadela de Pamplona. Esa energía y algunas de las emociones que compartimos durante aquellas horas las describe Danelle Sarriugarte en “Gora dantza behera”, sobre la alegría de bailar e interactuar con otros cuerpos, que a veces se torna en vulnerabilidad, el reto de enfrentarse a la “bajada” emocional que sigue a esos momentos intensos y la necesidad de búsqueda de estos espacios seguros para la autoexpresión.

Esta exposición de fragilidad necesaria para experimentar presencia o distancia de una misma aparece en “No quiero hablar de la fiesta, quiero hablar del tiempo”, donde Perla Zúñiga, a quien agradecemos profundamente haber sido un referente en celebrar esta vida, reflexiona de forma poética y profunda sobre su relación con el tiempo. Escribe sobre cómo estos eventos intensos emocionalmente nos revelan una perspectiva diferente sobre la temporalidad, que se desdobra y se vuelve maleable, y quizás por ello pueden llevarnos a buscar refugio en lo efímero, junto a quienes buscamos la evasión en la música y en la fiesta compartiendo esos momentos de vulnerabilidad.

Esa experiencia de maleabilidad, en este caso material (la del kimchi), la recoge el texto “Enchastrémonos los dedos (y los deseos)” de Romina Casile, a través de una experiencia personal en uno de los primeros encuentros de *erraiak* en 2019. Se refiere a ella como metáfora de los procesos de memoria, deseo y comunidad, celebrando la fragilidad y el placer de la creación colectiva, donde los cuerpos se transforman en espacios de encuentro y de resistencia, creando una forma de estar que va más allá de la simple acción.

Una forma de estar que también narra Elena Olave en “Bihozkada ozeaniko bat”, texto en el que destaca cómo sus proyectos artísticos siempre han estado vinculados a la necesidad de actuar colectivamente, más allá de la amistad, y de formar parte de espacios de colaboración. Una corazonada oceánica que funciona como metáfora para comparar el proceso de creación colectiva con un océano vibrante y en movimiento, opuesto al desierto aislado que es crear desde el individualismo.

Ce Quimera eta txe roimeserrek, halaber, kolektibitateen konpromiso hori berrirudikatzea erabaki dute “Quisiéramos contaros un cuento –de holobiontes y otras palabras difíciles de recordar–” testuan: bizitza kolektiboaren inguruko ikuspegi berriak esploratzeko proposamena da. Hasteko, Iruñera doaz bidaian, giza arbasoekin eta gizaki ez diren arbasoekin izandako bizipenetatik igaroz. Egileek proposatzen digute giza kontuetatik harago doan genealogia partekatu bat, elkarrekin existitzearen eta elkar ulertzearen aldekoa, lotura horiek izan ditzaketen inplikazio politiko eta existentzialak kontuan hartuz.

Era berean, praktika kolektiborako eszenatoki posible berriak fabulatzea da Ikasketa Postnaturalen Institutuko “La Academia del Silencio”-k aurkezten duen estrategia. Fikziozko kontakizun bat da, eta entzute sakona praktikan jartzeko ikas-kuntza-espazioak irudikatzen ditu. Fikzio espekulatiboko ariketa honek elkarrekin ikasteko beste modu batzuk iradokitzen ditu, ez bakarrik gizakien artean, baizik eta beste espezie batzuekin eta planetarekin berarekin elkarreraginean eta elkarrekikotasunean.

Azkenik, argitalpen honetarako testuak idatzi dituzten egileekin batera, aurrez aurreko programan parte hartu zuten artista, kolektibo eta kide batzuen ahotsak agertzen dira: Black Power Pamplona, Aitana Cordero, Dp villanueva, Ana Laura Duarte, Elan D’Orphium, Mainer Garayo, Las Nenas, Uxue Lotero Torres, Pablo Marte eta plazeratu.klub. Ekarpene horiek intentsitate eta formatu desberdinetan jaso dira, betiere idazten/partekatzen duenaren esperientziaz abiatuta eta gure galderei erantzuteko eta zerbait itzultzeko moduan.

Lara Molina,
2024ko azaroa

Optan también por reimaginar este compromiso de colectividad Ce Quimera y txe roimeser con “Quisiéramos contaros un cuento –de holo-biontes y otras palabras difíciles de recordar–”, su propuesta para explorar nuevas perspectivas en torno a la idea de vida colectiva. Comenzando por un viaje inicial a Iruña y pasando por vivencias con ancestros humanos y no humanos, los autores abogan por la coexistencia y el entendimiento de una genealogía compartida que trasciende lo humano, donde se contemplan las posibles implicaciones políticas y existenciales de estos vínculos.

De igual modo, fabular nuevos escenarios posibles para la práctica colectiva es la estrategia que presenta “La Academia del Silencio” del Instituto de Estudios Postnaturales, un relato de ficción que imagina espacios de aprendizaje en los que poner en práctica la escucha profunda. Un ejercicio de ficción especulativa que sugiere otras formas de aprender juntas, no solo entre humanas, sino en constante interacción y reciprocidad con otras especies y el propio planeta.

Por último, los distintos autores que han escrito para esta publicación se cruzan a su vez con las voces de algunos de los artistas, colectivos y participantes en el programa presencial: Black Power Pamplona, Aitana Cordero, Dpvillanueva, Ana Laura Duarte, Elan D’Orphium, Mainer Garayo, Las Nenas, Uxue Lotero Torres, Pablo Marte y plazeratu.klub. Estas aportaciones se recogen con distinta intensidad y formatos, siempre desde la experiencia de quien escribe/comparte y a modo de devolución y respuesta a nuestras propias preguntas.

Lara Molina,
noviembre 2024

08 Gora dantza behera

Danele Sarringarte

Arriba bailar abajo 09

12 Ez dut hitz egin nahi festaz, hitz egin nahi dut denboraz

Perla Frñiga

No quiero hablar de la fiesta, quiero hablar del tiempo 13

18 Narras ditzagun hatzak (eta desirak)

Romina Casile

Enchastrémonos los dedos (y los deseos) 19

01

**Gora
dantza behera**

Bilbo, irailak 16

Danele

El frío puro
una explanada azul la mañana de bajura
restaura la justicia brevemente
la bajada

*María Salgado**Gora*

festaren dardara oraindik barrenean.
perreatzearen dardara, ahoak erdizka zabalik, joanda bezala, ipurdi bat nire al-
daken artean, esku bat nire bizkarrean behera.

hitz egin ere egin dugu, tarteka.

biharamunean —ordu batzuk geroago, egiaz— eta biharamunaren biharamu-
nean —biharamun egiazkoa hori— karga handiko une horietara itzultzen naiz etengabe:
baten batzuk dira, lauso oroitzen ditut. lauso eta solte: elkarrizketa-pusketak, besarka-
dak, pertsona hau eta gero hura. hemen egon nintzela eta gero hemen eta gero beste
hemen. eszena horien arteko trantsizioak difuminatuta daude, denboraren igaroa ere
bai: pastien efektua da, badakit. horixe lortzeko jaten ditut, gas-egoera horretan egoteko,
bueloan, baina gero nahi izaten dut xehetasun osoz oroitu dena, berriro gozatzeko, dar-
dara luzatzeko.

bueloa berriro bizitzeko baina distantziatik.

22 Bihokada ozeaniko bat

Elena Clave

Una corazonada oceánica 23

26 Ipuin bat kontatu nahi genizueke

—holobionteei eta gogoratzeko zailak diren beste hitz batzuei buruz—

Ce Quimera y txe roimeser

Quisiéramos contaros un cuento

—de holobiontes y otras palabras difíciles de recordar— 27

36 Isiltasunaren Akademia

Instituto de Estudios Postnatares

La Academia del Silencio 37

Sarringarte

El frío puro
una explanada azul la mañana de bajura
restaura la justicia brevemente
la bajada

María Salgado

con el temblor de la fiesta aún dentro.
el temblor de perrear, las bocas medio abiertas, como ida, un culo entre mis
caderas, una mano que baja por mi espalda.
también hablamos, de vez en cuando.
al día siguiente —al de unas horas, en realidad— y al día siguiente del
día siguiente —la resaca verdadera— vuelvo una y otra vez a esos momentos de
gran carga afectiva: unos pocos, los recuerdo vagamente. y sueltos: fragmentos de
conversación, abrazos, esta persona y luego aquella. que estuve aquí y luego aquí y
luego en aquel otro aquí. Las transiciones entre escenas se difuminan, el paso del
tiempo también: es por las pastis, lo sé. para eso las como, para estar en esa sensa-
ción gaseosa, volando, pero luego quiero recordarlo todo al detalle, volver a gozarlo,
alargar el temblor.

revivir el vuelo pero desde la distancia.

01

Arriba
bailar abajo

Bilbao, 16 de septiembre

Arriba

Dantza

Regetoia eta elektronika ez dira batere gauza bera dantzatzeari dagokionez, hori badakizue askok. regetoiak beheraino eramaten zaitu eta niri konkretuki bero nagoeneko aurpegiera hori jartzen dit, goi-gustera bat. elektronika eta zehazki housea dantzatzeko, berriz, orduak pasa ditut dj bati begira, beti gorantz beti ilaran beti besoak luze bertikal. mezan edo bageunde bezala, eta zentzu batean bageunden nolabaiteko erritual batean, haragokora hurbildu nahian.

dantzatzeko hasi nintzenean —nerabetan, elgoibarren— askoz gehiago dantzatzeko nuen housea regetoia baino, nahiz eta biak existitzen ziren aldi berean elkarren ondoan: housea guaslean eta regetoia, esate baterako, ilunpen. patxanga esaten genion garai hartan. gasolina atera zenean 2004 zen eta nik hamabost urte nituen, real. orain hogeita hamabostekin elektronika esperimentaleko festibaletan ere jaisten naiz beheraino, adibidez, lev-en dengue dengue dengue-ren saioan. gauza asko aldatu dira, batzuk onerako, eta ez da nire meritua nagusiki.

tartean behin ingurukoei begiratzearen oparia.

2004an niretzat jada existitzen zen regetoia, esate baterako ilunpen. ez nuen dantzatzeko, kantatu bai. letra guztiak dakizkit, oraindik, eta hainbeste urteren ostean baten bat jartzen dutenean emozionatu egiten naiz eta lehen akordeekin batera oihera egiten dut: *EEEE!* edo remix bat baldin bada bat-batean samplea ezagutzen badut: *daleeee* edo *horiii*. dena delako kantua errepikakorra edo zuzenean txarra dela esaten didate batez ere remixik gabe agertzen denean, eta agian bai, ez dakit, baina musikak bezainbeste hunkitzen nau oroitzapenak, kantu horiek ez dira kantuarik bakarrik, nire bizitzaren parte bat dira, artefaktu afektiboak.

ilunpen kantatu bakarrik egiten nituen, edo kantatu batez ere. zehazki zer egiten nuen, nola mugitzen nintzen ikusi ahal banu orain. ilunperen paretak ikusi egiten ditut, horiek bai, harria oro. komun ondoko txokoa hartzen saiatzen ginen beti. batzuetan, arratsaldearen lehen orduetan hutsik egoten zen erabat, jendea litrotan, eta gu bakarrik egoten ginen —hiruzpalau, laupabost— eta agian beste talde bat.

hala zen egun hartan. iritsi ginenerako beste taldea han zegoen, txokoan. tipak ziren, hala irakurtzen genituen. dantzan ari ziren tope, nik elgoibarren patxanga tabernetan inor ikusi ez nuen moduan. gaur egun ziur aski hola dantzatzeko dugu guk, gozamenarekiko konpromiso berarekin. ezin nuen haiek begiratzeari utzi. beste mundu bat zabaldu balitz bezala bat-batean. beste bizitza bat posible balitz bezala. haietako bat hurbildu zen nigana, pixka bat defentsibara?, eta galdetu zidan ea zergatik nengoen begira, ea gaizki iruditzen zitzaidan nola egiten zuten dantza. soziologia-edo ikasten zuela eta jendearen erreakzioa aztertzen zebilela, zer-nolako jarrera hartzen zuen inguruak emakumeek espazio publikoan dantza egiten zutenean. banekien zeri buruz zebilen baina elkarriketa handi geratzen zitzaidan oraindik. adierazi nahi nion miresmena eta inbidia sortzen zidatela, ez epaia, adierazi nahi nion haien alde nengoela, bestela bizitzea eta aritzea posible zela ikusi nuela haiei esker eta hainbeste gustatuko litzaidakeela haiekin egotea eta ez nire taldearekin. halako zerbait esango nion totala, miresmena eta inbidia aipatuko nituen batez ere, baina ez dakit sinetsi zidan. ulertzen dut eta aldi berean halako mina eman zidan nire begirada hala jasoa izateak, epai negatibo gisa, epai diziplinatzaile gisa. jakingo banu nor den, berarekin topo egin ahal banu orain, eskerrak eman ahal banizkio. eskerak emango nizkioke.

Bailar

el reguetón y la electrónica no son lo mismo en lo que a bailar se refiere, eso ya lo sabéis muchxs. el reguetón te lleva hasta abajo y a mí en concreto me pone esa cara de cuando estoy caliente, una cara de alta gusterá. con la electrónica y específicamente con el *house*, en cambio, me he tirado horas mirando al dj —masculino genérico intencionado—, siempre hacia arriba siempre en fila siempre los brazos largamente verticales. como si estuviéramos en misa o algo, y lo estábamos, una especie de ritual para llegar a lo de más allá.

cuando empecé a bailar —durante la adolescencia en elgoibar— bailaba mucho más *house* que reguetón, aunque los dos existieran al mismo tiempo uno al lado del otro: el *house* en la guass y el reguetón, por ejemplo, en el ilunpe. en aquella época lo llamábamos pachanga. cuando salió la gasolina en 2004 yo tenía quince años, real. ahora con treinta y cinco bajo hasta abajo incluso en los festivales de electrónica experimental, por ejemplo en el lev durante la sesión de dengue dengue dengue. muchas cosas han cambiado, algunas para bien, y no es principalmente mérito mío.

el regalo de mirar de vez en cuando a la gente que te rodea.

en 2004 para mí ya existía el reguetón, por ejemplo en el ilunpe. no bailaba, pero cantaba. aún me sé todas las letras y tras tantos años cuando ponen alguna me emociono y grito con los primeros acordes: ¡EEEE! o si es un remix, cuando reconozco el sample, digo de repente: *daleeee* o *esaaaaa*. me suelen decir que tal o cual canción es repetitiva o simplemente mala sobre todo cuando no es un remix, y quizá sí, no lo sé, pero el recuerdo me emociona tanto como la música, esas canciones no son tan solo canciones, son pedazos de mi vida, artefactos afectivos.

en el ilunpe solo cantaba, solo o sobre todo. ojalá pudiera ver qué hacía exactamente, cómo me movía. las paredes del bar las veo, esas sí: pura piedra. siempre procurábamos ponernos en la esquina cerca del baño. a veces, a primera hora de la tarde estaba completamente vacío, la gente de botellón —hacer litros, lo llamábamos—, y estábamos solas —tres o cuatro o cinco— y quizá otro grupo.

así fue aquel día. para cuando llegamos el otro grupo ya estaba allí, en la esquina. eran tías, así las leíamos. bailaban a tope, de una manera que yo nunca había visto en elgoibar en los bares pachangueros. seguramente así es como bailamos nosotrxs hoy en día, con ese mismo compromiso hacia el placer. no podía dejar de mirarlas. como si de repente se abriera otro mundo. como si otra vida fuera posible. una de ellas se me acercó ¿un poco a la defensiva? y me preguntó por qué las miraba, si acaso me parecía mal cómo bailaban. que estudiaba sociología o algo y que estaba analizando la reacción de la gente, cómo actuaba el entorno cuando las mujeres bailaban en el espacio público. sabía de lo que hablaba pero la conversación me quedaba grande en ese momento. quería expresarle que las admiraba y envidiaba, para nada las juzgaba; quería expresarle que estaba con ellas, que había visto en su baile la posibilidad de vivir y actuar de otro modo y que me gustaría tanto estar con ellas y no con mi grupo. le diría algo por el estilo a duras penas, hablaría sobre todo de envidia y admiración, pero no sé si me creyó. lo entiendo, y al mismo tiempo me dolía tanto que mi mirada se recibiera así, como juicio negativo, como juicio disciplinante. si supiera quién es, ojalá encontrarla ahora, ojalá darle las gracias. se las daría.

mundua aldatzen baldin bada jendaurrean erakutsiz beste mundu batzuk posible direla, posible dela bestela egotea, bestela mugitzea, bestela gozatzea, orduan mundua aldatu zidaten dantzari haiek, eta eskerrik asko.

garai hartan oso bakarrrik nengoen eta perreatu gusturago perreatzen da norbaitekin, batzuekin, musika edozein izanda ere, eta are gusturago eroso sentitzen bazara eta lasai, zure buruari joatean utzi ahal badiozu. nire mundua zentzu horretan aldatu da, mundu-kapsula berri batzuk zentzu horretan sortu ditugu. ez dira berriak aurrez ez direlako inoiz gertatu, baizik eta eskura jarri ditugulako berriro.

gure plazera gerta daitekeen lekuak berriro.

bollurria, feministaldia, plazeratu, harrika, bollotopaketak, erraiak.

Behera

batzuetan jaisten zaidanean nabaritzen dut efektua argien.

konparazio bat, ez oso zehatza: nonbait zaude, soinu bat entzuten da etenik gabe, soinu gogaikarri bat agian, baina intentsitate baxukoa; ahaztu egiten duzu, ohitu egiten zara. halako batean mozten da eta gogora datorkizu: hara, zarata hori.

niri pastiekin horrelako zerbait gertatzen zait alderantziz: kolpetik desagertzen den sentsazioa ez da zarata bat baizik eta halako gozamen sentsorial difuso bat.

beste konparazio bat, zehatzagoa agian: eguzkitan pasa duzu eguna, hezurak berotu zaizkizu, hezurak eta azala eta denak, eta bat-batean, iluntzean, hotzikara agresibo hori.

jaisten zaidanean aterpea behar izaten dut: izan daiteke lagunak besarkada edo argi-bola txiki bat nire barnean edo nire porlanezko etxe literala. lagunak duela ordu-erdi joan dira; beherakada atximurkadaka goxatzen lagun diezadakenik ez dago gaur hemen; izaki eder distiratsu batek bere furgonetako giltzak eskaini dizkit baina horrek ez nau baretuko.

jada ez dut sinesten, garai batean sinetsi izan nuen bezala, beste norbaiti dagokionik ni salbatzerik igo ostean nahitaez jaitsi behar izatetik.

neuk eramango dut neure burua babesera.

02

Ez dut hitz egin nahi festaz, hitz egin nahi dut denboraz

2024ko apirilaren 19a

Ez dut hitz egin nahi festaz,
hitz egin nahi dut denboraz.

2021 da eta taxian goaz zulo batera bidean; asko hitz egin digute horretaz, sekretua eta sakona baita. Barneratu ahala, paisaia betetzen du zeta-geruza fin batek, uzkiaren paretak aldatzen dira eta airea ukitu egiten da, bero dago, xuxurlari. Ezerezetik, baso batean agertzen gara, sintetikoa dirudi baina ez da, eta sasitzan aurkitu ditugu bi esaldi dantzan. Bata bestearen parean. Ez dute beren artean hitz egiten, baina elkar ulertzen dute. Horra hor raveen magia. Bata 1917koa da, bestea 2021ekoa.

si el mundo cambia mostrando en público que otros mundos son posibles, que es posible estar de otra manera, moverse de otra manera, gozar de otra manera, entonces aquellas bailongas cambiaron mi mundo, y gracias.

en aquella época estaba muy sola y se perrea más a gusto con alguien, con más gente, más allá del estilo musical, y aún más a gusto si te sientes cómoda, tranquila, si puedes salirte de la cabeza. en ese sentido ha cambiado mi mundo, en ese sentido hemos creado nuevas cápsulas de mundo. no son nuevas porque no hayan sucedido nunca, sino porque volvemos a ponerlas en circulación.

lugares, de nuevo, donde suceda nuestro placer.

bollurria, feministaldia, plazeratu, harrika, bollotopaketak, erraiak.

a veces siento su efecto más claramente con la bajada.

una comparación, no muy exacta: estás en algún lugar, escuchas un sonido constante, un sonido molesto quizá, pero de baja intensidad; lo olvidas, te acostumbras. de pronto se corta y te das cuenta: ay, el ruido.

con las pastis me pasa algo parecido pero al revés: la sensación que desaparece de golpe no es un ruido sino cierto gozo sensorial difuso.

otra comparación, quizá más exacta: has pasado el día al sol, se te han calentado los huesos, los huesos y la piel y todo lo demás, y de repente, al anochecer, ese escalofrío agresivo.

cuando me baja necesito refugio: puede ser el abrazo de las colegas o una pequeña bola de luz en mi interior o mi casa, literal. las amigas se han ido hace media hora, no hay nadie aquí que pueda aliviarme la bajada a arañazos, un ser brillante me ofrece las llaves de su furgó pero eso no me calmará.

ya no creo, como creía antes, que le corresponda a nadie la responsabilidad de salvarme del hecho de que después de subir hay que bajar.

yo misma me arroparé.

Abajo

02

Fríniga

No quiero hablar de la fiesta,
quiero hablar del tiempo.

No quiero hablar de
la fiesta, quiero
hablar del tiempo

19 de abril del 2024

Es 2021 y estamos en un taxi camino a un agujero, nos han hablado mucho de este agujero porque es secreto y profundo. A medida que nos adentramos, el paisaje se inunda por una fina capa de seda, las paredes del recto van cambiando de color y el aire se vuelve palpable, está caliente y susurra. De la nada, aparecemos en un bosque que parece sintético, pero no lo es, y entre la maleza nos encontramos a dos frases bailando. Una enfrente de la otra. No se hablan, pero se entienden. Esa es la magia de las raves. Una es de 1917 y la otra de 2021.

“Beste behin ere, atea ireki zen, eta bera mundu desberdin batera pasa zen, nolabait esan: gauaren mundura; hotza, adigaitza, denborarik existitzen ez den mundua.”

—*Katherine Mansfield, 1927*

“Desirarik gabeko denbora bat, hala eta guztiz ere gozatu egiten duena.”

—*McKenzie Wark, 2021*

Ai, lagun, zenbat aldiz desio izan dunan denboratik ihes egin, eskapo, zenbat aldiz desio izan dunan hor bertan jatea hi, erdian, ez dadin inoiz amaitu, sekula. Zenbat aldiz pentsatu dunan tximeletak zerbaiten helburua direla, eta hik beti nahi izan dun goian hegan egin, ondo goian.

Behin eta berriro jotzen hunan pentsamendu horietara dantza egin bitartean, batzuetan jendez lagunduta, beste batzuetan bakarti, batzuetan hire etxean, beste batzuetan aretoetan. Ihesbide hutsa zen. Hire eguna, laburrean, gaua iritsi arteko orduak zenbatzea zunan, azkenik hiregandik urruntzeko eta hiregana hurbiltzeko. Une horretan hi gauza bat hintzelako kanpoarentzat eta beste bat barruarentzat. Gaua, izan ere, kontraesana da, aterpea delako, baina arriskutsua ere bada. Ilun egonda ere argi asko dagoelako.

Liburu-dendan, kafetegian, etxean edo, orain, klubetan jotzen hunanean, segundoak zenbatzen ibiltzen hintzen, une hori noiz iritsiko, une hori non dena lerrokatzen den, non tobogan baten bidez gela batera iristen hintzen mundutik kanpo eta barru dagoena. Denboratik kanpo eta barru. Eta, han, gustura hago. Dena baitabil beste abiadura batean, beste hizkuntza batean mintzo baikara, beste kode batzuk baitaude.

Behin batean —ezin izango dugu oroitu noiz— hainbeste garbitu hintzen non bizitzatik bereizi baihintzen, eta ulertu genuen ezen errealitatea, zurtasuna, ezin izango hunala inoiz desitsasi, txiklea nola zapata-zolan, eta, hala eta guztiz ere, zuloen, atze-oihalen eta pasadizo ezkutuen eraikuntzari esker iraungo dun bizitzara lotuta. Arnasa hartu hunan. La-sai geratu hintzen. Bizitzaren misterioa deskubritu hunala sentitu hunan. Eta orain ez dun horrenbeste urrundu nahi, atze-oihalak eraikitzea baita heure burua maitatzetik eta heure buruan bizitzetik hurbilen daukanan modua. Desira hutsa ditunalako, eta hori partekatu dezakenalako. Elkarrekin egin dezakegulako.

Backstage askok osatzen dute bizitza,

nire lagunak izan dira bat,

festa izan da beste bat.

Izugarri gustatuko litzaidake oroitzea noiz sentitu nuen lehen aldiz denborak bestela ekiten zuela. Beharbada, nire lehen maskota hil zenean, untxi marroi bat, Ludovico izenekoa, edo kontsulta batean esan zidatenean tumore bat neukala saihetsei itsatsia, edo lehen aldiz kontsumitu nuenean MDMA, eta 4×4 baten erritmora dantzatu.

Untxia kolpe lehor bat izan zen,

tumorea lerro zuzen bat erdibitua,

eta droga, berriz, Dalíren erlojua desertuan.

Heriotzak, gaixotasunak eta festak badute bertute bat eta desgrazia bat: presentzialtasun erabatekoa ematen dizute, eta, aldi berean, horretatik urruntzen zaituzte. Ondorioz, beldurra ematen duen arren, zera efimeroa bihurtzen da gure ziurtasun bakarra: aingura bat da, gida bat. Eta geure buruari oroitarazi behar diogu, zeren irteten garen guztiok daukagu harreman toxiko bat denborarekin.

(McKenzie Warken Raving liburuari eskainitako Irakurketa klubean saio bat zuzentzekoa nintzen, baina ezin izan nintzen joan osasun-arazoak tarteko; horren ondorioz sortu zen testu hau).

“Una vez más, la puerta se abrió y ella pasó como si dijéramos a un mundo distinto, al mundo de la noche, frío, inescrutable, en el que el tiempo no existe.”

—*Katherine Mansfield, 1927*

“Un tiempo sin deseo que sin embargo coge.”

—*McKenzie Wark, 2021*

Ay, amiga, cuántas veces has tenido deseos de huir del tiempo, de escapar, de que te lo coman ahí, en medio, de que no se acabe nunca, jamás. Cuántas veces has pensado que las mariposas son la finalidad de algo, y es que tú siempre has querido volar bien, bien alto.

Una y otra vez recurrías a esos pensamientos mientras bailabas, algunas veces acompañada, otras veces solitaria, algunas veces en tu casa, otras veces en salas. Era pura escapatoria. Tu día se resumía en contar las horas para que llegara la noche y poder alejarte de ti, y poder acercarte a ti. Porque en ese momento tú eras una cosa para el afuera y otra cosa para el adentro. Porque la noche es contradicción, porque es un refugio, pero es peligroso. Porque está oscuro pero hay mucha luz.

En la librería, en la cafetería, en tu casa o ahora mientras tocabas en clubs, contabas los segundos para que llegara ese momento donde todo se alinea y entras en un tobogán que te lleva a un cuarto fuera y dentro del mundo. Fuera y dentro del tiempo. Y allí, estás a gusto. Porque todo funciona con otra velocidad, porque hablamos otro idioma, porque hay otros códigos.

Un día, que no vamos a poder recordar, te aseaste tanto que te separaste de la vida, y comprendimos que la realidad, lo blanco, es algo de lo que nunca te vas a poder despegar, como chicle en suela de zapato, y es, sin embargo, la construcción de agujeros, bambalinas y pasadizos ocultos lo que te va a mantener atada a esta vida. Respiraste. Te quedaste tranquila. Sentiste que descubriste el misterio de la vida. Y ahora no quieres alejarte tanto porque construir bambalinas es lo más cercano que has encontrado a quererte, a habitarte. Porque son puro deseo y puedes compartirlo. Porque podemos hacerlo juntos.

*La vida está formada por muchos backstages,
uno son mis amigas,
otro ha sido la fiesta.*

Me encantaría recordar la primera vez que sentí que el tiempo funcionaba de otra manera. Pudo ser cuando se murió mi primera mascota, un conejo marrón que se llamaba Ludovico, o cuando me dijeron en una consulta que tenía un tumor pegado a las costillas, o la primera vez que consumí MDMA y bailé al ritmo de un 4x4.

*El conejo fue un golpe seco,
el tumor una línea recta partida por la mitad
y la droga el reloj de Dalí en un desierto.*

La muerte, la enfermedad y la fiesta tienen la virtud y la desgracia de otorgarte una presencialidad total y, al mismo tiempo, distanciarte de ella. Esto provoca, aunque dé miedo, que lo efímero se convierta en nuestra única certeza; es un ancla, una guía. Y debemos recordárnoslo, porque todas las que salimos tenemos una relación tóxica con el tiempo.

(Este texto surge de mi ausencia en el club de lectura dedicado a Raving de McKenzie Wark debido a problemas de salud, donde estaba programada para dirigir una de las sesiones.)

Ez dut hitz egin nahi festaz, hitz egin nahi dut denboraz

Gaur?

Gaur

iruditzen zait ez naizela esnatu
eta begiak ireki ditudala, besterik ez,
nire gorputza bailitzan bizitzaren jakinara-
zpen bat,

piztu egiten da eta hala dio:

Egun on,

bizirik hago oraindik.

Testu hau eskaini nahi diet
denborarekin harreman zaila duten
horiei guztiei,
astebururo irteten direnei
denborari beste aukera bat
eskatzera.

Barkatu,

ez da berriz gertatuko,
esan zuen, puntu finko bati begira.

Hitz hauek eskaini nahi dizkiet
ameslariei

eta ilusioei,

eguzkiaren sektarioei,
ilargiari

eta drogari,

emozioetarako bideak trazatzeagatik,
dena emateagatik

ezer eskatu gabe,

ezereza emateagatik

dena eskatzen dugunean.

Orobat eskaini nahi diet
poema hau koldarrei,
hitzen ziurgabetasunean
harrapatuta daudenei,
emaitzak diren gorputzei,
argiei

eta itzalei

baina batez ere

musikari,

askotan desio baitut isiltasuna,

eta pertsona ez izatea,

eta berak ematen dit guztia

hori guztia

ezer eskatu gabe.

Berak esan zidan maite haut

baina nik ulertu nuen

Geratuko gara edozein pub

randometako bonbo narrasean.

Zintzilikatu itzazue lepotik

zuen ametsak, asmakizunak eta amorruek

bihar sauna bat izerditzeko

zeren,

alferrik bada ere,

saia gaitzke denbora engainatzen,

geure burua engainatzen,

sinetsaraziz

ez garela pertsonak,

gauzekin kezkatzen direnak,

eta soilik garela

desira eta espaloia.



¿Hoy?

Hoy
siento que no me he despertado
y tan solo he abierto los ojos,
como si mi cuerpo fuera una
notificación de la vida
que se enciende y dice:
Buenos días,
sigues con vida.

Quiero dedicar estas palabras a
todas aquellas personas
que tienen una relación difícil
con el tiempo
y salen cada fin de semana
a pedirle otra oportunidad.

Perdón,
no va a volver a pasar,
dijo mirando a un punto fijo.

Quiero dedicar estas palabras
a todos los soñadores
y a las ilusiones,
a los sectarios del sol,
a la luna
y a la droga,
por trazar caminos a las emociones,
por brindarnos todo
sin pedir nada,
por brindarnos la nada
cuando pedimos todo.

Me gustaría también
dedicar este poema
a los cobardes,
a aquellas que estén atrapadas
en la incertidumbre de las palabras,
a los cuerpos que son resultados,
a las luces
y a las sombras,
pero sobre todo
a la música,
porque muchas veces deseo silencio,
y no ser persona,
y es ella quien me brinda todo
eso
sin pedir nada.

Él me dijo te quiero,
pero yo entendí:
Quedamos en el bombo guarro
de cualquier pub *random*.

Cuelguen de sus cuellos
sus sueños, acertijos y rabias
para mañana sudar una sauna
porque,
aunque no sirva de nada,
podemos intentar engañar al tiempo
y a nosotros mismos,
haciéndonos creer
que no somos personas
a las que les importan las cosas,
y solo somos
deseo y asfalto.



“No quiero hablar de la fiesta,
quiero hablar del tiempo”

—Perla Zúñiga

Perla Zúñigak “No quiero hablar de la fiesta, quiero hablar del tiempo” testuari laguntzeko aukeratutako kantuen zerrenda. Testua Caja Negra Editoraren webean kaleratu zen lehenik, eta ondoren argitalpen honetan.

Lista de canciones seleccionadas por Perla Zúñiga para acompañar el texto “No quiero hablar de la fiesta, quiero hablar del tiempo”, publicado en el blog de Caja Negra Editora y reeditado posteriormente en esta publicación.

03

Narras ditzagun hatzak (eta desirak)

Romina



ubideak, marruskadurak eta gargarak

Soinu-pieza, 2024

4' 24"

Romina Casile

Ibai-korronteen, gorputz-ekintzen, aho barruko bilaketa urtsuen eta buztinezko objektuekiko marruskadura-praktiken landa-grabaketak egin dira, gainjartzeak eta oihartzunak esploratuz, eta hortik sortu da *ubideak, marruskadurak eta gargarak* (2024). Grabaketa horiek, bada, Romina Casileren soinu-artxiboari dagozkio; artxibo hori zabaltzen ari da gaur egun ere, bere praktika artistikoaren eta mugimendu geografikoen bidez.

Errrrrrraaiakk,
sumendi proiektua
dinamitatu eta lehertu,
erre letrak bezala
durundi zure ahoan
erre letrak bezala
durundi zure ahoan
durundi zure ahoan
zure ahoan

Iritsi nintzen Iruñera, igo nituen egurrezko maila batzuk, zeharkatu nuen korridore luze bat, kirrinka eta guzti, utzi nuen maleta, jaitsi, eta heldu nintzen baratze komunitario batera. Hala, heldu berritan topo egin nuen *erraiak*: kartografia emozional baterantz proiektuaren lehen esku-hartzearekin. Ez nuen guztiz ulertzen nola heldu nintzen hara, baina hantxe nengoen, eskuak hondoratzen, hatzak zikintzen, eta oratzen, pertsona ezezagun askorekin lankidetzan.

Berduraz, gatzez eta beste esku batzuek betetako goporretan eskuak sartzea ez zen soilik kimchia prestatzeko prozedura, ezpada, aldi berean, truke-, zabaltze- eta oihartzun-prozesu bat. Gopor haietan gure hatzak luzatu egiten ziren; nire belarriak eta azaleko poroak, berriz, antena bihurtu ziren, non nengoen eta zer gertatzen ari zen deszifratu nahian:

nola eraldatzen dira testurak goporraren barruan?,

zer distantzia gordetzen dira gorputzen artean?,

zer hizkuntza entzuten dut?,

nolakoa da inguratzen gaituen murmurioaren soinua?,

zer bide marrazten dute eskuek, mugimenduan?

Bat-bateko, espero gabeko lehen esperientzia hori, Ana Laura Duarte koordinatu zuena artista gonbidatu gisa, proiektuaren paisaia bihurtu zen: ekoizpen kolektiborako topaketak, zeinetan sarea egingo genuen beste eragile batzuekin, eta, hala, elkar afektatu: nire eskua jarri zu-

Casile

Enchastrémonos los dedos (y los deseos)

cauces, roces y gárgaras

Pieza sonora, 2024

4' 24"

Romina Casile

cauces, roces y gárgaras (2024) surge de una serie de grabaciones de campo de corrientes fluviales, acciones corporales, búsquedas acuosas dentro de la boca y prácticas de rozamiento con objetos de arcilla, en las que se exploran las superposiciones y resonancias. Estas grabaciones forman parte del archivo sonoro de Romina Casile, que se continúa ampliando con su práctica artística y en sus desplazamientos geográficos.

Errrrrrraaiakk,
proyecto volcán
que dinamita y estalla,
como la erre
que reverbera en tu boca
como la erre
que reverbera en tu boca
que reverbera en tu boca
en tu boca

Llegué a Pamplona, subí unas escaleras de madera, atravesé un largo pasillo que crujía, dejé mi maleta, bajé y arribé a un huerto comunitario. Así, recién llegada, me topé con la primera intervención de *erraiak*: "Hacia una cartografía emocional". No entendía muy bien cómo había llegado hasta ese lugar pero allí estaba, hundiendo mis manos, enchastrándome los dedos y amasando en colaboración con muchas personas que desconocía.

Meter las manos en cuencos llenos de verduras, sales y otras manos implicaba no solo el procedimiento para hacer kimchi, sino también un proceso de intercambio, despliegue y resonancia. En aquellos cuencos nuestros dedos se estiraban y alargaban, mientras que mis orejas y los poros de mi piel se convertían en antenas para intentar descifrar dónde estaba y qué estaba pasando:

¿cómo se van transformando las texturas dentro del cuenco?

¿qué distancias se sostienen entre un cuerpo y otro?

¿qué lenguas escucho?

¿cómo suena el murmullo que nos rodea?

¿qué recorrido trazan las manos en movimiento?

Esa primera experiencia repentina e inesperada que tuve, coordinada por Ana Laura Duarte como artista invitada, se convirtió en lo que sería el paisaje del proyecto: encuentros de producción colectiva que nos permitirían entrar en red con diferentes agentes y, así, afectarnos mutuamente: poner mi mano

rearen gainean, berduren gainean, gatzaren gainean; estutu eta gozatu.

Lehen topaketa horren moldagarritasun, biguntasun eta sendotasunetik idazten saiatzen naiz. Oroitzapenei tiraka idazteak berekin dakar berriro moldatzea eta tankera ematea. Hala nola ontzi bat egiten duzunean: buztina hartu —lur heze bloke bat—, eta tankera ematen hasten zatzazkio, eta zikindu egin behar duzu eta lokatzak estali behar dizu azala. Hor hasten da indarren elkartruke bat. Zure pisua iraultzen duzu materialaren gainean, eta materialak eman egiten du baina baita erresistentzia erakutsi ere. Tentsio bat dago egin nahi duzunaren, materialaren eta altxatzen diren formen artean. Lokatzak ere moldatzen dizkizu eskuak eta moldatzen zaitu zu. Eta ez dakizu oso ondo nola, baina edukitze-forma batera iristen zara, eta gero erabil dezakezu, eta gauzaz bete. Eta hustu eta beste gauza batzuekin bete, hutsuneak ahalbidetzen baitu elkartrukearen eta mugimenduaren aukera.

Era berean, tentsio ukigarri bat dago oroitu nahi denaren eta oroitzen denaren artean, denboraren igaroaren eta memoriaren artean, oroitzen dugunaren eta horrek gudan duen eraginaren desplazamenduan. Arratsalde hartatik, oraindik sentitzen dut hatzen nahas-mahasa, bata bestearekin gurutzatzen testura bigun eta labainkorrez betetako goporetan. Oroitzen ditut barreak, ahoetatik irteten inoiz entzun gabeko soinuak, mugimendu sinkronizatuak eta eguzki-izpiren batzuk hodeien, adarren eta hostoen artean lerratuz, mahaiaren gainean marrazkiak sortzen zituztela.

erraiak nahi izan zuen komunitate gisa osatzen eta eusten gaituzten arren beti ikusgai egoten ez diren adierazpenei heldu, alderdi kolektiboa azpimarratuz: elkarrekin egotea, antolaketa-moduak eta jakintzen uztarketa, denak ere desirari lotuta, erraietako erraiei, esan zidan Larak; inskripzio-marko berriak sortu, hartara Iruñeko kultur bilbaduran dituzten efektuak hedatu eta zabaldu daitezen, eta porotsuagoa izan dadin.

Hatzak sartuz eta tarteak sortuz, iruditzen zitzaigun lekuak zabaltzen zirela, leku berriak. Tarte horiek ere goporrak dira, eta, aldi berean, oihartzun desberdinak proposatzen dituzte. Uste dut zerbait zabaldu dela eta pozarren nago, esan zidan Dasek. Denbora-tarte laburrean, mugitzen ari zen zerbaiten parte sentitu nintzen. Ez nuen inor ezagutzen, inork ez ninduen ezagutzen, baina hantxe nengoen, besoak, hankak eta belarriak batetik bestera mugitzen, ni neu astintzen, beste gorputz batzuekin bat egiten, haiek ere ari baitzitzaizkion amore ematen gurekin elkarreaginean ziharduten materien pultsioari.

Materialtasunarekin harremanetan nagoenean, segurtasunak topatu ohi ditut. Eskuekin egitea. Eskuekin egiteak gorputzera eramaten gaitu, azalera, mugimenduetara eta xehetasunetara. Eskuekin egitea aterpea aurkitzeko modu bat da. Eskuekin egiteak komunitateak sortzeko potentzia eratzen du. Geldoagoak eta ez hain produktiboak izateko/egoteko dinamika transbertsaletan murgilduta, egunaren tramak berak maiz eragozten dizkigun gauzak patxadaz eginez.

Ospatzekoak iruditzen zaizkit halako topaketak, non, elkarrekin eginez, paisaia zabaltzen, arrakalatzten eta sakabanatzen baita, eta leku handiagoa egiten baitzaie subjektibotasunaren adierazpenei, loratu eta biderka daitezen. Elkar zipriztin dezagun, elkar zikindu, elkar kutsatu, komunitatearen zentzua ezinbestekoa bilaka dadin existitzeko, garatzeko, eta geure burua zaintzeko; hala aldarrikatuko ditu modu pluralean eraikitako espazioak, pultsiorik sakonenean mobilizatuak, desiratik eta plazeretik.

Iluntzean, hosto bustizko lastaira baten gainean oinez ibili ginen, eta sakon-sakon arnastu bitartean. Eskuak hotz, bezperako zapatak oinetan, eta Arga ibaiaren kantua belarrietan. Gure ahotsetan nahastu ziren entzundako hizkuntza guztiak eta dastatutako

encima de la tuya, encima de vegetales, encima de sales; apretujar y disfrutar.

Intento escribir desde la maleabilidad, blandura y firmeza de aquel encuentro. Escribir desde el recuerdo implica volver a moldear y a dar forma. Como cuando hacés una vasija y tomás la arcilla, un bloque de tierra húmeda, y le comenzás a dar forma y para hacerlo te tenés que ensuciar y que el barro recubra tu piel. Allí comienza un intercambio de fuerzas. Volcás tu peso sobre el material y este cede pero también planta su resistencia. Existe una tensión entre lo que querés hacer, el material y las formas que se van elevando. El barro también moldea tus manos y te moldea a vos. Y no sabés muy bien cómo pero llegás a una forma contenedora, y luego podés usarla y llenarla de cosas. Y vaciarla y llenarla de otras cosas, porque el vacío habilita la posibilidad del intercambio y del movimiento.

De igual manera, existe una tensión palpable entre lo que quiere ser recordado y lo que se recuerda, entre el paso del tiempo y la memoria, entre el desplazamiento de lo que recordamos y su impacto en nosotras. Cada recuerdo al que volvemos nos modela tanto como nosotras le damos forma a él. De aquella tarde sigo sintiendo un menjunje de dedos entrecruzándose en cuencos llenos de texturas blandas y resbaladizas. Recuerdo risas, sonidos que nunca había escuchado salir de bocas, movimientos que se sincronizaban y algunos rayos de sol infiltrándose entre nubes, ramas y hojas de árboles que hacían dibujos sobre la mesa.

erraiak se propuso abrazar aquellas manifestaciones que nos conforman y sostienen como comunidad pero que no siempre son visibles, haciendo hincapié en lo colectivo, en el estar juntas, en las formas de organización y en el entrecruzamiento de saberes –todas vinculadas al deseo, a la entraña pura, me dijo Lara–, generando nuevos marcos de inscripción para expandir y amplificar sus efectos en el entramado cultural de Iruñea, y hacerlo más poroso.

Metiendo los dedos y haciendo huecos sentíamos que se abrían lugares, nuevos lugares. Huecos que también son cuencos y que a su vez proponen diferentes resonancias. Creo que algo se abre y estoy encantado, me dijo Das. En poco tiempo me sentí parte de algo que estaba en movimiento. No conocía a nadie y nadie me conocía, pero allí estaba, moviendo mis brazos, mis piernas y mis orejas de un lado a otro, sacudiéndome, mimetizándome con otros cuerpos que también se dejaban llevar por la pulsión de las materias con las que interaccionábamos.

En contacto con la materialidad suelo encontrar certezas. Hacer con las manos. Hacer con las manos nos conecta con el cuerpo, con la piel, con los movimientos y con el detalle. Hacer con las manos es una forma de encontrar refugios. Hacer con otras manos engendra la potencia de crear comunidades. Sumergidas en dinámicas transversales de ser/estar más lentas y menos productivas, demorándonos en aquello que muchas veces la propia trama del día a día nos impide hacer.

Celebro estos encuentros que desde el hacer juntas abren, fisuran, diseminan el paisaje y dan lugar a mayores manifestaciones de subjetividades para que afloren y se multipliquen. Para que nos salpiquemos, manchemos y contaminemos las unas a las otras, y que el sentido de comunidad se transforme en necesidad para existir, desarrollarnos y cuidarnos; reivindicando así los espacios construidos pluralmente, movilizados desde las más profundas pulsiones, desde el deseo y el placer.

Al caer el sol caminamos sobre un colchón de hojas mojadas mientras respiramos muy profundo. Teníamos las manos frías, zapatos de la noche anterior y oíamos la cantata del río Arga. En nuestras bocas se mezclaron todas las lenguas que escuchamos

zaporeak oro. Gure erraietan hamaika ahots aditzen ziren. Desio izan nuen lur bustia blai zedila nire urratsez, eta ni berataz.

Orain, testu hau Nafarroatik kanpo idatzi dut, arreta eskainiz oroitzapenei, koadernoetako oharrei eta sentsazioei. *Eta gogoan ditut lurra eta estaltzen nauten hizkuntzen sonoritatea. Eta gogoan ditut hatz luzatuak eta topo egiten duten hizkuntza mestizoak. Eta gogoan dut erraiak hitza esaten dudan aldiro erre letrak nire aho-sabaiaren kontra sortzen duen bibrazioaren frikzioa. Eta gogoan dut zure ahoan distira egiten duen listua, herrari edo erru edo bibratu esaten duzun aldiro. Eta gogoan ditut lagunak, desplazamenduak eta deribak. Eta berriro topatzeak eta sinkroniak.*

04

Bihozkada ozeaniko bat

Elena

Praktika artistikoa, desira eta kolektiboa.

Hitz horiek gurutzatuta, elkarren ondoan edo elkarri eraginez ulertze-ko erabakia hartzen badut, hitzok ireki eta esanahiak eraldatzeko aukerak sortzen dira. Momentu honetan zaila iruditzen zait sorkuntza edo praktika artistikoaren inguruan pentsatzea beste bi termino horiek buruan izan gabe. Baina, *nola ulertu besteekin, kolektiboki egiteko behar horren nondik norakoak?* Modu bat izan daiteke nire ibilbide pertsonalean egingako arkeologia lanak hemen azaltzea, “nire” horretan hainbat “ni” ageri baitira, “gu”-a barne. Izan ere, nire sortzeko grina ezinbestean dago lotuta besteekin egiteko eta egoteko desirarekin, komunitate baten bilaketarekin eta horren elikatzearekin. Gogo horretan “ni besteak naiz” edo “n/i esatean mundua diot” formulazioen pisua agerikoa da. Bada, jarraian irekiko dudan ibilbidean desira horrek ezagutarazi dizkidan paisaietako batzuk aipatuko ditut.

2021. urtean ezagutu nuen Lara, eta, horren ondorioz, *erraiak* proiektua. Udazken hasieran egin genuen elkarrekin topo Iruñean. Momentu hartan, Pedrorrekin batera, *Ukitu* proiektua aurrera eramateko egonaldi bat egiten ari nintzen Uharte Zentroan. Hortxe ezagutu nituen Lara, *erraiak*, Maider, Adri eta baita *Ukitu* zein nire sortzeko eta ikertzeko moduetan eragin zuzena izango zuten beste hainbat pertsona ere. *erraiaken* argitalpen honetarako Larak praktika artistikoa, desira eta kolektibotasunari buruz zerbait idazteko eskatu zidan burura etorri zitzaidan gauzetako bat egun haiekin lotuta dago. Irudi zehatz eta argi bat da.

Mahai zuri baten bueltan

Pedro, Lara eta hirurok,

eta airean esaldi bat:

laguntasunetik haratago antolatu

eta elkarrekin egiteko/egoteko beharra.

Ez nago ziur Larak esan ote zuen esaldi hura edo beste inori irakurri ote nion. Garaiko oroitzapenak lausoak dira; asko irakurtzen eta hitz egiten genuen, eta errealitateko bi planu horietatik jasotakoak, halabeharrez, nahastu egiten ziren. Halere, dakidana da une horrekin lotzen dudala esaldi hura.

y todos los sabores que probamos. En nuestras entrañas sonaba una pluralidad de voces. Deseé que la tierra mojada impregnara mis pasos y yo impregnarme en ella.

Ahora escribo este texto desde fuera de Navarra, deteniéndome en los recuerdos, las notas en los cuadernos y las sensaciones. *Y pienso en la tierra y en la sonoridad de las lenguas que me cubren. Y pienso en los dedos alargados y en las lenguas mestizas que se encuentran. Y pienso en la fricción de la vibración que produce la erre contra mi paladar cada vez que digo erraiak. Y pienso en la saliva que brilla en tu boca cuando decís errante o error o vibrante. Y pienso en las amigas, en los desplazamientos y en las derivas. Y en los reencuentros y en las sincronías.*

Clave

04

Una corazonada oceánica

Práctica artística, deseo y colectividad.

Si cruzo esas palabras, si las pongo la una junto a la otra o decido comprenderlas de manera entrelazada, surgen oportunidades para abrirlas y transformar sus significados. En este momento me resulta difícil pensar sobre la creación o la práctica artística sin tener en cuenta los otros dos términos. *¿Pero cómo comprender los pormenores de esa necesidad de actuar con les otros, de actuar colectivamente?* Podría, por ejemplo, explicar aquí la labor de arqueología que he desarrollado en mi trayectoria personal, *ya que en ese “mi” aparecen diversos “yos”, incluido el “nosotros”.* Mi querer crear está inevitablemente unido al deseo de hacer y estar con les otros, a la búsqueda de una comunidad y a alimentarla. En esas ganas pesan de manera obvia las formulaciones del tipo “yo soy les otros” o “al decir y/o digo el mundo”. Así, comentaré algunos de los paisajes a los que me ha llevado ese deseo en esta trayectoria que me dispongo a abrir.

Conocí a Lara en 2021, y debido a ello conocí el proyecto *erraiak*. Nos encontramos a principios de otoño en Iruñea. En aquel momento estaba, junto con Pedro, llevando a cabo una residencia para el desarrollo del proyecto *Ukitu* en el Centro Uharte. Allí fue donde conocí a Lara, al proyecto *erraiak*, a Maider, a Adri y otras tantas personas que influirían de manera directa tanto en *Ukitu* como en mis formas de crear e investigar. Una de las cosas que me vino a la mente cuando Lara me pidió que escribiera algo en torno a la práctica artística, el deseo y la colectividad para esta publicación de *erraiak* se remite a aquellos días. Es una imagen concreta y clara.

*Alrededor de una mesa blanca,
estamos Pedro, Lara y yo,
una frase cuelga en el aire:
la necesidad de organizarnos
y hacer/estar juntas más allá de la amistad.*

No estoy segura de si Lara dijo la frase o la había leído en algún otro sitio. Mis recuerdos de aquella época están borrosos; leíamos y hablábamos mucho, y las cosas recibidas en esos dos planos de la realidad se mezclaban inevitablemente. Sin embargo, sé que asocio la frase con aquel momento en concreto.

Esaldi horren oihartzunari segika, elkarrekin pentsatzeko saiakera egin genuen 2022ko neguburuan Pedrok eta biok La Zurdan antolatutako *long-table-an*, kultur-lana eta prekarietatea hizpide. Halere, parte hartzaile guztion artean sortutako testuinguru hark sentiarazitakoa ezaguna zitzaidan, aurretik ere beste toki eta pertsona batzuekin gorpuztutakoa.

Izan ere, sorkuntza artistikoaren bueltan, kolektiboki antolatzeko nire lehen esperientzia Durangoko Sorginola gaztetxeko Ateneoan gertatu zen 2017.urtean gutxi gora behera. Hantxe ezagutu nituen nire legez literatura bakardade eta isolamendutik kanpo gozatu eta ulertu nahi zuten gazteak, izen-berezi-markarik gabeko idazketa bultzatu nahi zutenak, lehiaketen logiketarik kanpo literatura edonon eta edonork sor zezakeela baieztatzen zutenak, baina, batez ere, edukiez gain egiteko moduak politikoak zirela gogorarazi zidatenak. Tailerrak, fanzineak, tertuliak, jaiak eta abar egin ziren.

Egin genituen, saretu ginen.

Babesgune eta arnasmune bat sortu zen.

Ez dut uste kasualitatea denik, batez ere, gune auto-gestionatuek eskaintzea espazioa, denbora eta baliabideak balio eta ideal politiko bertsuei jarraiki antolatzeko eta sortzeko. Zentzu horretan, ezin utzi aipatu gabe 2023an ezagutu ahal izan nuen Bilboko Karmelako liburutegi autogestionatua (Bestiak). Ateneoan legez, Bestiako kideek literaturaren bueltan interesa eta desira egiazkoa duen jendea biltzeko, elkar ezagutzeko eta hausnartzeko testuingurua sortu dute, beti ere, ikuspegi politikoa eta kritikoa ardatz eta baloratze-koa den militantzia lanari esker.

Komunitate baten bilaketaren albo kaltez ere sortu da aurten *Pomada banda*, zehazki, poesiarekiko zirrara eta gogoia kolektiboki ulertu eta poesia sortu eta partekatze-ko ekosistema ukigarri bat sortzeko grinaz. Gaur egun asko hitz egiten da poesiaren heriotzaz, poesiari beldurrez edo poesiaren ulertezintasunez, eta, beharbada, gehiegi hitz egin ere (poesia hitza artea hitzarekin ordezkatu daiteke nahi bada). Hala ere, *Pomada* bezalako hainbat proiektu daude Euskal Herrian, sinisten dutenak poesia edo artea gauza lurtar eta gizaki ororena dela. *Pomadak* apirilean antolatutako “ez gara inor” topaketetan poesia egiteko bestelako moduez hausnartu genuen, poesia kutreaz, kursias, poesia kuirraren potentzialitate politikoaz, bere oraina eta etorkizunaz, poesia pobrez, militantziarako eta pedagogia kritikorako poesiak, poesiren transmisioaz eta hezkuntzaz, poesia eta bizitzaz, eta abar luze bat. Irakurtaldi kolektiboa egin genuen eta gutako bakoitzak bere testuak irakurri zituen ahots goran. Elkarrekin hausnartzeaz batera, elkarrekin gorpuztu genituen hitzak. *Pomada* haur inozo eta ilusionatu gisa identifikatu dezakete askok, baina, edozer baino gehiago, kolektiboki egiteko leku bat da, poesia bidelagun munduaz hitz egin eta bertan egoteko bestelako erak irudikatze-ko. Momentuz, esango nuke, *Pomada* poesiari eskainitako leku xume bat dela, aspirazio handirik gabekoa,

Ukitu bere garaian izan zen bezalakoxea:

elkarrekin egin, egon, sentitu, pentsatu eta sortzeko leku bat.

Norbanakotasuna ezabatzen ez duen kolektibotasuna.

Testu honen idazketa prozesuarekin bukatzen ari naizen honetan ere, besteekin idazten ari naiz; alboan ditudan autore, lagun eta esperientziekin kontaktuan. Proposatutako ibilaldi honi bukaera nola eman ez dakidala, nire lagun Arrateri eskaini diot testu honen zirriborroa berak irakur dezan. Irakurtzen ari den liburu bateko pasarte batekin erantzun dit, “pentsatzen eta idazten ari zaren horretarako baliagarria egingo zaizulakoan”. Pasarte horretan ozeanoaren eta desertuaren paisaiak kontrajartzen dira, horietako bakoitza giza

Tirando del eco de esa frase, probamos a pensar juntas en invierno del 2022 en la *long table* que organizamos Pedro y yo en La Zurda, al hilo del trabajo cultural y la precariedad. De todos modos, aquello que me hizo sentir el contexto creado entre todes les participantes me sonaba, ya lo había acuerpado en otro lugares y con otras personas.

Mi primera experiencia de organización colectiva en torno a la creación artística tuvo lugar en el Ateneo del gaztetxe Sorginola de Durango, en 2017 aproximadamente. Allí fue donde conocí a otras personas jóvenes que querían, como yo, gozar y comprender la literatura más allá de la soledad y el aislamiento; que querían promover una escritura sin la marca del nombre propio; que afirmaban que la literatura la puede crear cualquiera en cualquier lugar más allá de la lógica de los concursos; pero, sobre todo, que me recordaban que, más que el contenido, son las formas de hacer las que son políticas. Se organizaron talleres, fanzines, tertulias y fiestas, entre otras cosas.

Las organizamos, nos articulamos.

Surgió un espacio de protección, un espacio de vida.

No creo que sea casualidad que quienes ofrecen el espacio, el tiempo y los recursos necesarios para organizarse y crear según dichos valores e ideales políticos sean mayoritariamente los espacios autogestionados. En ese sentido, no puedo dejar de mencionar Bestiak, la biblioteca autogestionada de Karmela, en Bilbao, que pude conocer en 2023. Igual que en el Ateneo, les compañeres de Bestiak han creado un contexto para reunir a gente con un interés y deseo genuino hacia la literatura, un contexto para conocerse y reflexionar, manteniendo siempre la perspectiva política y crítica como eje gracias a una labor militante digna de mención.

Pomada banda ha surgido este año como daño colateral de la búsqueda de comunidad y, concretamente, con el deseo de comprender las ganas y el temblor que sentimos hacia la poesía y de contar con un ecosistema tangible para escribirla y compartirla. Hoy en día se habla mucho de la muerte de la poesía, quizá demasiado (la palabra poesía se podría sustituir por la palabra arte). Sin embargo, existen en Euskal Herria varios proyectos como *Pomada*, que creen que la poesía o el arte son asuntos terrenales y de todas las personas. En las jornadas “No somos nadie” organizadas por *Pomada* reflexionamos sobre otros modos de hacer poesía, sobre la poesía cutre, cursi, sobre la potencialidad política de la poesía cuir, sobre su presente y su futuro, sobre la poesía pobre, la poesía para la militancia y la pedagogía crítica, la transmisión de la poesía y la educación, sobre la poesía y la vida, y un largo etcétera. Llevamos a cabo una lectura colectiva y cada une de nosotres leyó sus textos en voz alta. Al tiempo que reflexionamos juntas, también acuerpamos las palabras juntas. Hay quienes identificarán *Pomada* como una criatura tonta e ilusionada, pero, por encima de todo, es un lugar para hacer colectivamente, para hablar del mundo e imaginar otras maneras de habitarlo acompañades por la poesía. Por el momento, diría que *Pomada* es un lugar humilde dedicado a la poesía, sin grandes aspiraciones, tal como lo fue *Ukitu*, en su momento:

un lugar para hacer, estar, sentir, pensar y crear juntas.

Una colectividad que no elimina la subjetividad.

También ahora, terminando el proceso de escritura de este texto, estoy escribiendo con otras; en contacto con les autores, amigues y experiencias que me rodean. No sé cómo dar término a esta trayectoria que he propuesto, así que le paso el borrador del texto a mi amiga Arrate para que lo lea. Me contesta con un fragmento del libro que está leyendo, “por si te sirve para eso que estás pensando y escribiendo”. En dicho fragmento se contraponen los paisajes del océano y el desierto, asociando cada uno de ellos con una

esperientzia batekin lotuta. Lerro hauetan marraztu dudan ibilbide zatikatu eta partzialean ere hainbat ekosistema eta paisaia mota ageri diren arren, guztiek dute amankomunean zerbait. Guztiek iradokitzen dituzte ozeanoaren metaforaren ezaugarri izan daitezkeen bata-suna, osotasuna, mugimendua edo bizitza.

*Izan ere, gaur egun sorkuntzan gabiltzanotako asko
ozeano bizi eta anitz batean igerian gabiltza,
erritmo eta kadentzia egokia lortu nahian,
atzean utzitako desertu zatikatu
eta idorrari aurre egiteko eginahalean.*

Bada, ozeano mugagabe eta eder horri begira bukatu nahiko nuke paseo hau, aurreko paisaiak zeharkatu eta ezagutzearen ondorioz, orain eta hemen lasai txis egin, jan, edan eta deskantsatzeko aukera eskainita.

*Beharbada, horretara murriz daiteke guztia,
izan eta egon ahal izateko paisaia baten asmakuntza ariketara.
Laguntasunetik haratagoko
antolakuntzari esker sortzera, bizitzera.
Beharbada bihozkada bat baino ez da guztia.
Bihozkada ozeaniko bat.*

05

Ipuin bat kontatu
nahi genizueke
—holobionteei eta
gogoratzeko zailak
diren beste hitz
batzueie buruz—


*Le Ozeano
y tre r*

“Zientzia-fikzioa da, baita ere, inork pentsatzen ez duen horretan pentsatzen hastea. Hizkuntza berri bat”.

Mariana Enriquez, Claudia Rodríguez
Ciencia ficción travesti liburuan.

Erdibideko leku bat topatu behar genuen Bartzelona eta Bilbo artean: Iruñea agertu zen mapan. Deriba genealogiko transfeminista eta familiarak tarteko, Itzi lagunak hartu gintuen bere etxean, eta, oturuntza baten erdian, proiektuari *Holobionteak, sinbionteak eta beste zolitasun batzuk* deitu genion, eta Larak pasieran harrapatu gintuen, horrela bizi baikara: zubiak eraikiz lurraldean bizi garen arraroen artean. Bat-batean, proiektua, eta gu, egun horietan, buru-belarri bideratuak suertatu ginen azaltzera zer diren guretzat ikerketak aipagai dituen beste genealogia horiek, zer den topaketa hau eta nola lotzen diren, barruan edo bitartez, desirak, kolektibotasuna eta praktika artistikoa gizakiaz harago.

Esaten ari garen honen hariari jarraitu ahal izateko, akaso kontatu beharko dugu zer den zera hau: *Holobionteak, sinbionteak eta beste zolitasun batzuk* —konpainia-xomorren genealogia tra(n)shumantea—.



experiencia humana. Si bien aparecen varios ecosistemas y tipos de paisaje en la trayectoria fragmentada y parcial que he dibujado en estas líneas, todos tienen algo en común. Todos sugieren las características de unidad, totalidad, movimiento o vida que podrían asociarse a la metáfora oceánica.

*Muchas de quienes andamos creando hoy en día
nadamos en un océano vivo y diverso,
tratando de encontrar el ritmo correcto,
la cadencia adecuada, en un intento de enfrentarnos
al desierto dividido y seco que dejamos atrás.*

Así, me gustaría terminar este paseo mirando al infinito y bello océano; tras haber atravesado y conocido los paisajes anteriores, ofreciéndoles la oportunidad de, aquí y ahora, hacer pipí, comer, beber y descansar tranquilamente.

*Quizá todo se reduzca a eso,
al ejercicio de inventar un paisaje para poder ser y estar.
A crear y vivir gracias a la organización
que va más allá de la amistad.
Quizá todo esto no es más que una corazonada.
Una corazonada oceánica.*

05

Quisiéramos
contaros un cuento
—de holobiontes
y otras palabras
difíciles de recordar—

quimera
quimeser

*“La ciencia ficción también es empezar a pensar
en lo que nadie piensa. Una nueva lengua.”*

Mariana Enríquez en *Ciencia ficción
travesti*, de Claudia Rodríguez.

Teníamos que encontrar un sitio a medio camino entre Barcelona y Bilbao: aparece Iruña en el mapa. En derivas genealógicas transfeministas y familiares nos acoge la amiga Itzi en su casa y, en medio de un banquete, nombramos el proyecto *Holobiontes, simbiosis y otras sutilezas*, y Lara nos captura al pasar^[1], porque así vivimos: tendiendo puentes entre los raros que habitamos este territorio. De pronto el proyecto y nosotras nos vemos inmersas y dirigidas, en esos días, a explicar qué son para nosotras esas otras genealogías de las que habla la investigación, qué es este encuentro y cómo se vinculan dentro o a través los deseos, la colectividad y la práctica artística más allá de lo humano.

Para que se pueda seguir el hilo de lo que estamos diciendo quizá sea necesario que contemos qué es esto de *Holobiontes, simbiosis y otras sutilezas* —genealogía tra(n)shumante de bichos de compañía—.

Orain hiru urte *gutun bidezko elkarrizketa bat izan genuen cek eta txek*

Gutuna I

Aipatzen nizkizun erle bat, haren heriotza —horren bila ibili izana esleitzen nion—, ozpin eta bikarbonatoarekin kentzen saiatzen ari naizen lizunaz, ez nizun aipatzen badirela egun batzuk *dragonet* bat usteltzen ari dela terrazan, ezta ere tomateak gorri daudela jada. Bururatzen zitzaidan, elkartze aldera, batetik, gizakitik ateratzeko daukagun gogoak, eta, bestetik, zein gizakiak garen, egin genezakeela gure giza genealogiei lagundu dieten animalia ez-gizakien genealogia bat, eta politikoa izan dadila, mugei buruzkoa, eta, ziur aski, baita espekulatiboa ere.

Balizko genealogia horretan bide bat aurkitzen dut distantziak laburtzeko, nork laguntzen zuen jakiteko eta zentroan jartzeko ez-gizakiak eta migrazioak. Eta espekulazio horrek Camilleren Historiak-era narama: bost belaunalditik gora biltzen dira, sinbionteak dira, Camilleren kasuan monarka tximeletak, eta beharbada guk bost belau-naldi egingo ditugu atzera beste sinbionte horien bila: agian ez zeuden desagertzeko arriskuan, agian lurra lantzeko erabiltzen ziren, agian familiek berek jan zituzten, agian ni gaur bakterioak bikarbonatoarekin erretzen ibili naiz eta zuk inurri bat zanpatu duzu eskuarekin.


Gutuna II

Atzo testu bat irakurri nuen gaztari buruz eta harekin bizi ziren bakterio- eta onddo-komunitateei buruz: gazta hazarazten dute eta gure migrazioetan ere laguntzen digute. Agian gaztak ere badira konpainia-xomorroak. Interesgarria litzateke begiratzea zer beste xomorro mugitu diren giza migrazioekin batera. Orokorrean animalia ez-gizakiei eta handiei buruz hitz egiten da: txakurrak, zaldia, behiak... konpainiarako animaliak, eta jateko edo jana ekoizteko baliatzen direnak. Beharbada, pentsa genezake bakterio eta onddoen migrazio trasatlantikoetan, Abya Yalatiko erbeste politikoetan... ahaztu gabe preso oro dela preso politikoa. Eta, kolonizazioari lotutako historiak kontatzean, inozentzia ezatik abiatzen bagara, galderak agertzen dira:

Nola sartzen dira jokoan gizakien eta beste xomorro batzuen mugimenduek konkistaren eta lurraldeen zein komunitateen sarraskiaren garaian sortu eta kutsatu zituzten gaixotasunak? Bakterioak, protistak eta mikrobioak, oro har, izaki bizidun gisa sailkatuko lirateke, baina gaixotasunak aktibatzen dituzten parasitoei, adibidez malaria aktibatzen dutenei, horiei lekua emango diegu?

Zer gertatzen da birusekin, zeinek, beren antolaketa-moduagatik eta existitzeko moduagatik, mugara eramaten baitute izaki biziduna bera zer den?

Zer gertatzen da harriekin, mineralekin, ikatzarekin?



Hace unos tres años tuvimos *una conversación epistolar entre txe y ce*

Te comentaba de una abeja, de su muerte —lo que yo le adjudicaba que estaba buscando—, del moho que estoy intentando quitar con vinagre y bicarbonato; no te hablaba de que hay un *dragonet* en descomposición desde hace unos días en la terraza ni de que algunos tomates están rojos. Se me ocurría, para juntar esas ganas de salirnos de lo humano con lo extremadamente humanas que podemos ser, hacer una genealogía de los animales no-humanos que acompañaron a nuestras genealogías humanas, y que esto sea político y de fronteras, y también, seguramente, especulativo.

Encuentro en esta posible genealogía una manera de salvar distancias, de saber quiénes acompañaban, de poner en el centro a lxs no-humanos y las migraciones. Y esa especulación me lleva a las “Historias de Camille”^[2], que son de cinco generaciones para adelante, que son simbioses en el caso de Camille con las mariposas monarcas, y nosotras quizás nos vayamos cinco generaciones para atrás, buscando esos simbioses, que quizás no estarían en peligro de extinción, que quizás serían usados para trabajar en el campo, que quizás fueron comidos por las mismas familias. Que quizás hoy yo haya estado quemando bacterias con bicarbonato y tú hayas chafado una hormiga con la mano.

Carta I


Ayer leí un texto sobre el queso y las comunidades de bacterias y hongos con los que cohabitan y que los hacen crecer, y que nos acompañan también en nuestras migraciones. Igual los quesos también pueden ser bichos de compañía. Sería interesante en estas migraciones humanas ver qué otros bichos se han movido. En general se habla de animales no-humanos y animales grandes: perros, caballos, vacas..., animales de compañía y los que se utilizan para comer o producir lo que se come. Igual se puede pensar en migraciones de bacterias y hongos transatlánticas, exilios políticos desde Abya Yala..., sin olvidar que todo preso es político. Y partiendo de la no inocencia al contar historias vinculadas con la colonización aparecen preguntas:

¿Cómo entrarían en juego las enfermedades creadas o transmitidas por los movimientos humanos y de otros bichos durante la conquista y exterminio de comunidades y territorios? Las bacterias, protistas y microbios en general entrarían dentro de las clasificaciones de seres vivos, pero a los parásitos que activan enfermedades como la malaria, *¿les damos espacio?*

¿Qué pasa con los virus que por su forma de organización y su forma de existir ponen al límite la definición de lo que es un ser vivo?

¿Qué pasa con las piedras, los minerales, el carbón?^[3]


Carta II



Bi gutun horietatik proiektu bat sortu zen, gaur hona ekarri gaituena, senideekin elkarrizketa asko izan eta gero, gure artean elkarrizketa asko izan eta gero, energia asko jarri eta gero ez bakarrik gure familiaren ezpada gure bizitza bitxi, kuir, migratzaileen ahozko historia erreskatatzeko; sukaldean aritu, paseatu, sirenak, gaztainak, ahuakatetxoak aurkitu eta berriro ere alberjiniak eskabetxean egin eta gero; gertatzen diren larrialdiei arreta eman eta gero —balizko proiektu artistikoetatik eta harreman espezialetatik haragoko larrialdiak, egunerokoarekin lotutako larrialdiak baina orobat bio eta nekropolitikaren zerikusia dutenak, gure bizimoduarekin eta gure gertuko afektuen bizimoduarekin lotuta daudenak—. Gertatu dira bidaiak, ebakuntzak, autoko gurpilen lapurretak, haserreak, aldairak; gertatu dira elkartu eta lanerako aldarrean ez egoteko egunak, familiako elkarrizketak bertan behera uztekoak edo hizketan hasi eta beste zerbaiti buruz jardutekoak, gaur gertatu diren eta urgentekak diren gauzei buruz jardutekoak. Baina, urgentzia horiek gorabehera, edo, hobeto esanda, urgentzia horiekin, eta topaketa horiekin lortu ditugu idazteko uneak, marraztekoak, gure artean lan-metodologia batzuk finkatzekoak, zeinak lagungarriak zaizkigun konpainia-xomorroen genealogia hau kontatzeko eta fikziora ekartzeko.

Proiektu hau zaila da azaltzen


*(zaila da, are, ahoskatzen), formalizatzen,
eta bera kontatzeko balio dezaketen mintzairak bilatzen.*



*Haziak eta historiak edukitzeko poltsa

Ipuin bat kontatu nahi dizuegu, eta zuek begiak ixtea, eroso etzanda, baina testu bat idatzi behar dugu. Beraz, testu bat idazteak, paper zuri baten gainean hitz bat bestearren atzetik jartzeak ekar dezakeen plano-mugarekin, hona hemen zeraren arrasto batzuk.

Kuboa



Tomate-landarea eta saltsa

balantza bat gertatzen da egunero, bidean gora bidean behera, kubo urdina goraino beteta letxugaz, tomatez, bidean gora, bidean behera arrautzekin, bidean gora geratzen da eta betetzen da barraskiloz, zeinak nahasten diren olioaren pentsurekin eta haiei esker betetzen da kuboa arrautzez itzulerarako, edo bidean behera. behean, non eremuaren bazterreko pikondoak, [...] ikasi izana ikatza egiten beste baso batean, baso honetako etxea berotzeko, non bazter hezeetan hazten baitira *trompetes de la mort* delakoak, non landareak zaintzen dituen galdu egin daitekeen, eraman daramana, batzuetan, kuboak hauts dezake belaua, eraman etxez etxe eraman elikagaia eta beroa eta karakolak: torlojuak.


Baratzean hazten ari nintzen bitartean Mildiu agertu zen: haizeak ekarri zuen, edo euriak, espora forman. Euriak, batzuetan, zauri txikiak eragiten dizkit, eta nire ehunduraren zirrikitu txiki horietatik sartzen da Mildiu... edo beharbada elkar bezatzen dugun gizaki horietako batek ur gehitxo bota zidan eta orduan agertu zen zas!. Giza animaliek etengabeko lana egiten dute berek apurtu,

De esas dos cartas germinó un proyecto, el que nos trae hoy aquí, después de muchas conversaciones con familiares, muchas conversaciones entre nosotres, después de mucha energía puesta en rescatar la historia oral no solo de nuestras familias sino de nuestras vidas raras, *queer*, migrantes; después de cocinar, de pasear, de encontrar sirenas, castañas, paltitos y volver a hacer berenjenas en escabeche; después de atender a las urgencias que suceden, que van más allá de posibles proyectos artísticos y relaciones multiespecies, urgencias que tienen tanto que ver con el cotidiano como con la bio y necropolítica, con cómo vivimos y con cómo viven nuestros afectos cercanos. Ha habido viajes, operaciones, robos de ruedas de coche, enojos, mudanzas, días de quedar y no tener cabeza para trabajar, días de suspender entrevistas familiares o tenerlas y acabar hablando de otras cosas, de cosas que pasan hoy que son urgentes. Pero a pesar de, o mejor dicho con, estas urgencias y con estos encuentros hemos conseguido momentos de escritura, de dibujo, de poder establecer entre nosotras algunas metodologías ^[4] de trabajo que nos ayudan a relatar y ficcionar esta genealogía de bichos de compañía.

Es un proyecto que es difícil de explicar

(hasta de pronunciar), darle una formalización

o encontrar los lenguajes en los que puede ser relatado.



*La bolsa contenedora de semillas e historias

Quisiéramos contaros un cuento, que cerréis los ojos echades cómodamente, pero tenemos que escribir un texto. Así que, con las limitaciones de planos que puede generar escribir una palabra después de otra sobre un papel blanco, os dejamos algunos rastros de lo que es ^[5].

Sucede un vaivén diario camino arriba camino abajo, cubos azules cargados de lechugas, tomates, camino arriba, que van camino abajo con huevos, que camino arriba paran para llenarse de caracoles que se mezclan con el pienso de las gallinas que son las que permiten llenar de huevos el cubo para la vuelta, o camino abajo. Abajo donde la higuera que habita el margen del campo, [...] haber aprendido a hacer carbón de otro bosque para calentar la casa de este bosque, donde en márgenes húmedos crecen *trompetes de la mort*, donde quien cuida las plantas se puede perder, quien trajina, a veces, el cubo puede quebrarse la rodilla, trajinarse de casa en casa trajinando alimento y calor y caracoles: tornillos.

Cubo

Mientras crecía en la huerta apareció Mildiu, lo trajo el viento o la lluvia en forma de esporas. La lluvia a veces me causa heridas pequeñas, y por esos pequeños orificios en mi tejido entra Mildiu... O quizá alguno de los humanos con los que nos domesticamos mutuamente se pasó con la cantidad de agua al regarme y entonces ¡zas! apareció. Hay un trabajo

La tomatera y la salsa

Mildiu

desegonkortu, hautsi edo higitutakoa konpontzen saiatzen. Edonola den ere, nire hosto-egituran finkatu da Mildiu, nire zeluletan; mapa apartsuak eta testura bigunak marrazten dizkit gorputz osoan, eta zurtoinera iristean korapilo erraldoi bat sortu dit, txankro bat, alde banatan muga bat ezarriz: alde batean, klorofila-molekulek beren bideari jarraitzen diote, glukosa eta oxigenoa eratuz; beste aldean, heriotza. Tuneatu egiten nau, hostoetan orban berde argiak eta ilunak marrazten; ondoren, kolorea eta testura aldatzen zaie, koipetsuagoak egiten dira, lubrikatuta bezala, eta gero marroia iristen da, momentu nekrotikoa. Bizikidetzara horrek hainbat deriba har ditzake, ekosistemaren barruko barne-ekintza eta lotura askoren arabera da, *ez soilik Mildiuren eta kasuan kasuko gizakiaren arabera*. Maiz, gizakiek uste izaten dute dena konpondu dutela, nekez nabaritzen dituzte beren inguruan gertatzen ari diren prozesu askoren xehetasunak.

Batzuetan lankidetzan aritzen dira,

*beste batzuetan ingurura begiratzen dute eta ez soilik aurrerantz;
batzuetan uzten dute bizitza bestelakoek segi dezaten,
beraiek gorabehera edo beraiekin.*

*Kefirretik heriotzara
eta orishetara*

Eta gure arbasoei buruz hitz egiteak —gizakiak zein ez—, berekin dakar heriotzari buruz aritzea: usteltzen den materiaz, konpost bihurtzen diren haragiak eta ehundurez edo lurrian lan hori egiten diharduten onddoez eta bakterioez. Baina irudi hori zertxobait idilikoa da... Gertatu ohi da gure hildakoen gorputzak erre egiten direla, inork ezin duelako hilerririk ordaindu, mediterraneoan itotzen direla, gotorleku europarrak ez dielako sartzen uzten, edo kalean abandonatuta geratzen direla genozidio baten erdian. Hortik harago, hildakoek uzten duten beste materia hori buruz hitz egitea interesatzen zaigu. Materia ez dela esaten duten materia hori. Eta, hemen, gogora dakartzat iki yos piña funesen hitzak, Contra-colonial matter testukoak: espirituez ari naiz, jada plano hauetan ez dauden izakien presentzia-ausentziez, espektroez, oraindik ere zerbait esan nahi dutenez, irudimenezko izakiak, genealogia honen parte dira orobat, eta egunerokoan laguntzen gaituzte.

Gure hausnarketa hauek elkarrizketa batetik abiatzen dira —ezin dugu hona ekarri—; honako hauen arteko elkarrizketa bat: Ani, Mia (Ceren ama eta ahizpa); Raul, Barberi buruz mintzo (txeren aita eta birramona); Lynn Margulis eta Ailton Krenak. Elkarrizketan agertzen dira sirenak, orishak eta jainkotasunak aintzat hartzea, Pomba Gira, sorginduak, protistak, heriotza eta espiritutzeko aukera.

Ahuakatetxoa

ez da hainbeste ahuakatetxo bat hazten hasi zela, etxeetan ikusi ditut, jogurt potu txikietan sartuta, oroitzeko gaitasuna dudanetik, beste etxe batzuetan gauza bera gertatzen da: jogurt errotozko lorategi txikiak; gero lekuz aldatzen dira, banatu, patio txikitan hazi, lursailtxo lehorretan zein tropikaletan, [...] leku haietara iristen zen, gabonetako opariak nola, kaxa bat, barruan beste kaxa bat duela, eta barruan beste bat: goxokia. hala ahuakateak nola matea, ahal zena biderkatu. ez dakit han, mendian, ahuakatea gertatzen zen; ziur, baiezkotan, ez zela jogurt-potu plastikozkoetan gertatzen.

incesante por parte de los animales humanos de intentar arreglar lo que ellos mismos han roto, desestabilizado, fracturado o desgastado. Sea como sea, Mildiu se instaló en mi tejido foliar, en mis células; dibuja mapas espumosos y texturas blandas en todo el cuerpo y cuando llega al tallo forma un nudo gigante, un chancro, marcando una frontera a cada lado: a un lado las moléculas de clorofila siguen su recorrido produciendo glucosa y oxígeno, al otro lado la muerte. Me tunea con manchas de color verde claro o verde oscuro en las hojas, que luego van cambiando de color y textura volviéndose más aceitosas, como lubricadas, y luego viene un marrón, el momento necrótico. Esta convivencia puede tener diferentes derivas, depende de muchas intraacciones^[6] y muchos vínculos dentro del ecosistema, *no solo del Mildiu y de le humane de turno*. Muchas veces les humanas creen que lo han arreglado todo, les cuesta percibir los detalles de los muchos procesos que suceden a su alrededor;

a veces colaboran,

a veces saben mirar alrededor y no solo hacia adelante,

a veces dejan que las vidas otras continúen a pesar o con ellas.

Y hablar de nuestras ancestras humanas y no humanas implica hablar de la muerte también: de la materia que se descompone, de la carne y los tejidos que se vuelven compost o de los hongos y bacterias que están en la tierra haciendo este trabajo. Pero esta imagen es más bien algo idílico... Suele suceder que los cuerpos de nuestros muertos se incineran porque nadie puede pagar un cementerio, se ahogan en el Mediterráneo porque la fortaleza Europa no deja que entren o quedan abandonados en las calles en medio de un genocidio. Más allá de todo esto nos interesa conversar sobre esa otra materia que dejan los muertos. Esa materia que dicen que no es materia. Y aquí recuerdo palabras de iki yos piña funes en su texto “Contra-colonial matter”^[7], me refiero a los espíritus,

las presencias–ausencias de seres que ya no están en estos planos,

los espectros,

los que tienen algo que decir aún,

los seres imaginarios que también forman parte de esta genealogía y que nos acompañan al cotidiano.


Estas reflexiones nuestras vienen a partir de una conversación –que no podemos reproducir aquí– entre Ani, Mia (madre y hermana de Ce), Raúl hablando de la Babe (padre y bisabuela de txe), Lynn Margulis^[8] y Ailton Krenak^[9]. En la conversación aparecen sirenas, orishas y la incorporación de deidades, la Pomba Gira, los encantados, los protistas, la muerte y la posibilidad de espiritar.

No hace tanto empezó a crecer un paltito, los llevo viendo en casas, dentro de tarritos de yogur desde que tengo recuerdo. En otras casas sucede lo mismo: pequeños jardines de yogur enraizado que luego se mudan, se distribuyen, crecen en patios chiquitos, en terrenitos secos y otros tropicales, [...] donde llegaban, como regalos de Navidad, en una caja, con una caja dentro de otra caja: un caramelo. Los paltos como el mate, como multiplicar aquello que se podía. No sé si allí en la sierra sucedía el palto; seguro que sí, no era en tarritos de plástico de yogur.

Mildiu



*Del Kéfir a la muerte
y los orishas*



Paltito

Kanabera bortusaiarekin

Hau ez da bortusaia, beste landare bat da, zeina orobat den istorio honen parte, nahiz eta ez dugun izendatzen

Abuztuak 1, Pachamamaren eguna.

Aitonak erakutsi zidan 7 trago kanabera bortusaiarekin hartzen direla bauririk: lurrari eskerrak emateko erritual bat bere garaian, eta zorte ona eta osasuna eskatzekoa, espiritu gaiztoak uxatu asmoz. Kanabera bortusaiarekin hartzea antzinako praktika bat da Abya Yalako eremu askotan.

Aitonak Guaraniengandik ekarri zidan, kopiatuz, sinkretismoz, neguan hotzak akabatzen egoten zelako diot nik, bera Panpako gautxoak baitzen, ez guarania, baina txori eta ibai berberen artean hazia. Txorien izenak harengandik ikasi nituen guaranieraz. [...] Ohitura da lurrean turrustatxo bat isurtzea (lorontzi batean izan daiteke), Pachamamari gonbidapena luzatzeko. Urtebete edo hila-bete lehenago prestatzen da, botila batean nahasten dira kanabera-alkohola eta bortusai arraren hosto batzuk. Beratzen jartzen da leku ilun batean.

[1] Eskerrak eman nahi dizkiogu gure ahizpatxo Itziar Zigari, maitasunez ongiatorria emateagatik, barre eta besarkadengatik eta genealogia espezieanitzten definizio bat saiatzearen. Lara Molinari eta Leire San Martini konfiantzagatik eta atrebentziagatik. Huarte Zentroari harrera onagatik eta La Capellari bidelaguntzagatik eta bidaia hau ahalbidetzearen.

[2] Ikerketak zuzenean aipatzen du eta abiapuntutzat hartzen du “Camilleren Historiak” (Haraway Donna, *Seguir con el problema: generar parentesco en el Chthuluceno*. Consonni, Bilbo, 2020). Kontakizun horretan, Camilleren bost belaualdi kontatzen dira: Konpostaren Komunitateetan bizi den gizaki bat da, eta komunitate horretan gizaki bakoitza desgertzeko arriskuan dagoen espezie batekin lotzen da. Gizakiaren misioa da espezie horri laguntzea eta zaintzea, bere burua animalia sinbionte gisa hartuz. Konposteko biztanleen arteko harremanak ez daude derrigor lotuta odolaren bidez: kidetasunagatik eta elkarrekikotasun-harremanengatik hurbiltzen dira. Kontakizunean 5 Camille daude, “Camille 1”etik hasi eta “Camille 5”eraino; bakoitzean 50 urte espekulatzen dira aurrerantz, eta azaltzen zaigu nola bizi den monarka tximeleteen batera eta nola zaintzen dituen.

[3] Ikerketa honetan, genealogian sartu ditugu ez soilik izaki bizidunak baizik eta, baita ere, bizigabe esaten zaienak, giza animalien gorputzean edo gurekin daramatzagun objektuetan bidaiatzen dutenak, edo airean edo beste animalia ez-gizaki batzuekin bidaiatzen dutenak; ogia edo bestelako elikagaiak hartitzen dituztenak eta mineralizazioa eragiten dutenak, Unibertsoa berekin ekarri.

[4] Buru-belarri gabiltza ariketa espekulatibo batean, bidaian gabiltza gure genealogia ozeanoz gaindikoetan, erbesteratuetan eta/edo hegoaren eta iparraren artean migratuetan, geure burua ezagutzeko konpainia-xomorroen artean. Elkarrizketa hau gure artekoa da, eta beste espezie batzuekiko, horregatik, tresnak irudikatu behar ditugu komunikazio-zubiak finkatzeko.

[5] Ipuin batzuk idatzi eta marraztu ditugu, baina ezin ditugu osorik jarri hemen, karaktereen muga tarteko.

[6] “Materia ez da gauza bat soilik, ezta bizigabea, jada eman da datorren zerbait. Kontrara, materia da bilakaera barne-aktiboan dagoen substantzia bat; ez da gauza bat, egite bat da, agentziaren koagulatze da. Morfologikoki aktiboa da, harkorra, sortzailea eta artikulatua. Materiatzea da mundutik bereizteko prozesu barne-aktiboa, beti martxan. Barne-ekintzek eszenan jartzen dituzte ebaki agentzialak, zeinak baitira elkarrekin-aparte-moztea [*cutting together-apart*] (hau da, txirikordatzea-bereiztea) mugimendu bakar batean (ez elkarren segidako ekintza moduan)”. Barad, Karen, *Cuestión de materia*, Holobionte ediciones, Bartzelona, 2023.

[7] Ikus iki yos piña funes. “Contra-colonial matter”, en *La dimensión material de las nubes*, Pluriversidad Nómada, Editorial Pluri Ediciones, 2024.

[8] Margulis Lynn, *Una revolución en la evolución*, Valentziako Unibertsitatea, 2003.

[9] Krenak Ailton, *Futuro ancestral*, Editorial Cactus, 2024.


Esta no es una ruda, es otra planta que también forma parte de esta historia a pesar de no estar nombrada.

Caña con ruda

1 de agosto, Día de la Pachamama.

Mi abuelo me enseñó que se toman 7 traguitos de caña con ruda en ayunas: un ritual de agradecimiento a la tierra en su día y un pedido de buena suerte y buena salud para así espantar a los malos espíritus. Tomar caña con ruda es una práctica ancestral de muchas zonas de Abya Yala.

Mi abuelo me lo traía de los Guaraníes por copia, por sincretismo, por morirse de frío en invierno, imagino, porque él era gaucho de La Pampa, no guaraní, pero se crió entre los mismos pájaros y los mismos ríos. Los nombres de los pájaros los aprendí de él en guaraní. [...] Se acostumbra echar un chorrito en la tierra (puede ser una maceta) para convidar a la Pachamama. Se prepara un año antes o un mes antes, se mezcla en una botella alcohol de caña y unas hojas de ruda macho. Se deja macerar en un lugar oscuro.



[1] Queremos agradecer a nuestra hermanita Itziar Ziga por la amorosa bienvenida, las risas, los abrazos y por forzarnos a intentar una definición de genealogías multiespecies. A Lara Molina y Leire San Martín por la confianza y el atrevimiento. Al Centro Huarte por la buena acogida y a La Capella por el acompañamiento y hacer posible este viaje.

[2] La investigación hace referencia directa y parte del relato “Historias de Camille” (Haraway Donna, *Seguir con el problema: generar parentesco en el Chthuluceno*. Consonni, Bilbao, 2020). En este relato se cuentan cinco generaciones de Camille, unx humanx que vive en las llamadas Comunidades del Compost. En estas comunidades cada humanx se asocia a una especie en peligro de extinción. Su misión es conocer, acompañar y cuidar a esta especie, reconociéndose como animales simbioses. Las relaciones entre lxs habitantes del compost no están necesariamente vinculadas de manera sanguínea sino que se dan por afinidad y vínculos de reciprocidad. En el relato hay cinco Camilles, empezando por “Camille 1” hasta “Camille 5”; en cada una se especula 50 años hacia el futuro y nos explica cómo convive y procura el cuidado de las mariposas monarcas.

[3] A lo largo de la investigación hemos incluido en la genealogía tanto seres vivos como también los denominados no-vivos, que viajan en el cuerpo del animal humano o en los objetos que transportamos, o bien en el aire o junto a otros animales no-humanos, que fermentan el pan o los alimentos que comemos, los cuales mineralizan trayendo consigo el Universo.

[4] Estamos inmersas en un ejercicio especulativo que viaja por nuestras genealogías transoceánicas, exiliadas y/o migradas entre sur y norte, para reconocernos entre bichos de compañía. El diálogo es entre nosotrxs y con otras especies, para ello nos toca imaginar herramientas para establecer puentes de comunicación.

[5] Tenemos unos cuantos cuentos escritos y dibujados pero no podemos reproducirlos al completo por falta de caracteres.

[6] “La materia no es una simple cosa, algo inanimado que está dado. Por el contrario, la materia es una sustancia en devenir intraactivo; no una cosa, sino un hacer, un coagular de la agencia. Es morfológicamente activa, receptiva, generativa y articulada. La materiación es el proceso de diferenciarse intraactivo del mundo, siempre en curso. Las intraacciones ponen en escena cortes agenciales, que son un cortar-juntos-aparte [*cutting together-apart*] (es decir, entrelazar-diferenciar) como un solo movimiento (no como actos secuenciales).” Barad, Karen, *Cuestión de materia*, Holobionte ediciones, Barcelona, 2023.

[7] Ver iki yos piña funes. “Contra-colonial matter”, en *La dimensión material de las nubes*, Pluriversidad Nómada, Editorial Pluri Ediciones, 2024.

[8] Margulis Lynn, *Una revolución en la evolución*, Universidad de Valencia, 2003.

[9] Krenak Ailton, *Futuro ancestral*, Editorial Cactus, 2024.

Instituto Estudios

Isiltasunaren Akademiaren (IA) ustez, isiltasuna da soinu-paisaia bat zarata urbanoaren memoriarik gabea. Gerra Sonikoen eta aura-krisiaren azken gertakarien ostean bizirik geratu ziren gehienentzat, espazio akustiko hori atzemanezina da kasik. IAREN misioa azken itxaropen batean oinarritu zen: soinu horiek inoiz ezagutu gabeko belaunaldiek lor zezaketela giza espiritu kolektibo berri bat berreskuratzea.

Akademiaren zutarrari filosofikoa entzumen sakonaren praktikan oinarritzen da: existentzia modu horren bitartez, aurreko zibilizazioa indar kolonialei gailendu zitzairen. Espero gabe, Gerra Sonikoen eten egin zuten entzule sakonen mundu-ordena iraupen luzekoa: entzule sakonek, aurrez, lortua zuten beren entzumen aktiboko moduak finkatzea eta zabaltzea, eta, hala, espeziearteko koexistentzia enpatikoari bide ematea hainbat mendez. Ondo entrenatuta egon arren, ez zeuden prest arma sonikoen eboluzio teknologiko isilari aurre egiteko: N.O.I.S.E. mugimendu matxino klandestinoak garatu zituen horiek, uko egiten baitzioten entzumena erabiltzeari kolektibo planetarioaren eta denbora sakonaren kosmologiaren parte izateko bitarteko gisa. Suntsipen akustikoak erasan zion planetari eta ezin izan zen aurreikusitako; hala, gizakiak erori ziren: biztanle gehienak gor geratu ziren, existitzeari utzi arte.

Hondamendiaren ostean, eskualde horretan bizirik iraun zuten batzuek onartu zuten entzumen aktiboa ez zela aski elkarrekiko errespetuan eta konfiantzan oinarritutako gizarte baterako. Beren komunitateak berreraikitzen hasi zirenean, hondakin urbano abandonatuetan hartu zuten babes, bizitza ez-humanoz beteta orain. IAREN egoitza horretan, pareta batean aipu hau dago grabatuta; komunitate suntsituen erorikoari eutsi dio: "Maitasunaren bilaketak oztopo handien aurrean ere jarraitzen du". Sortu zenetik, akademia berriaren funtsezko printzipioetako bat izan da hori: maitasuna da beren eraldaketa-programaren muina, eta bost ziklo konpostagarri osoetan garatzen den lan guztia zeharkatzen eta elikatzen du.

Alabaina, txosten hau ez da akademiaren sorrerari buruzkoa; aitzitik, bere ikasketa-programan aplikatzen diren metodologia batzuk aztertzen ditu. Planeta-etxearen latitude hauetan akademiaren egoitza nolako bidea egiten ari den ebaluatzeko bidali ninduten hona. Gure egoitza, esferaren iparraldean kokatua, borrokan ari da norbanako batzuen arteko diferentziak bideratzeko, izan ere, espazio sakratu seguruan eragiten ari dira, eta gatazken konponketen arloan uhin-sinkronizazioak eragozten.

Instituto de Postnaturales

06

La Academia del Silencio

La Academia del Silencio (AS) define el silencio como un paisaje sonoro libre de la memoria del ruido urbano. Para la mayoría de los supervivientes de las Guerras Sónicas y los últimos eventos de la gran crisis aural, este es un espacio acústico prácticamente inalcanzable. La misión de la AS se basó en una última esperanza: que las generaciones que nunca conocieron esos sonidos pudieran prosperar en la regeneración de un nuevo espíritu humano colectivo.

El pilar filosófico de la academia tiene sus raíces en la práctica de la escucha profunda, un modo de existencia que guió a la civilización anterior a prevalecer sobre las fuerzas coloniales. Inesperadamente, las Guerras Sónicas pusieron fin al previo y duradero orden mundial de los oyentes profundos, que habían conseguido establecer y expandir sus modos de escucha activa, y que posibilitaron siglos de coexistencia inter-especie empática. A pesar de su extenso entrenamiento, no estaban preparados para la silenciosa evolución tecnológica de las armas sónicas, desarrolladas por el movimiento rebelde clandestino N.O.I.S.E. que rechazaba la escucha como medio de pertenencia al colectivo planetario y a la cosmología del tiempo profundo. La destrucción acústica que asoló el planeta fue impredecible, provocando la caída humana: la mayoría de la población quedó ensordecida hasta la inexistencia.

Después de la catástrofe, algunos de los supervivientes en esta región aceptaron que la escucha activa no era suficiente para una sociedad fundada en el respeto mutuo y la confianza. Cuando comenzaron a reconstruir sus comunidades, buscaron refugio en las ruinas urbanas abandonadas, repletas ahora de vida no humana. En esta sede de la AS, se puede encontrar grabada en una de las paredes la siguiente cita, que ha resistido la caída de las comunidades devastadas: "La búsqueda del amor continúa incluso frente a grandes obstáculos". Desde su creación, ha simbolizado uno de los principios fundamentales de la nueva academia: el amor es la base de su programa transformacional, y atraviesa y nutre todo el trabajo desarrollado en los cinco ciclos compostables completos.

Sin embargo, este informe no trata sobre el origen de la academia; es un análisis en torno a algunas de las metodologías aplicadas en su programa de estudios. Fui enviado aquí para evaluar cómo la sede de la academia está prosperando en estas latitudes del hogar planetario. Nuestra sede, ubicada al norte de la esfera, está luchando por mediar las diferencias entre algunos de los individuos que están interfiriendo el espacio sagrado seguro e impidiendo las sincronizaciones de onda en las resoluciones de conflictos.

Hemen hiru ur-ziklo igaro ostean, neure kabuz ikusi dut zer-nolako metodologiak erabili dituzten desadostasun armoniazkoen jario etengabe bat bermatzeko, zaintza kolektiboan oinarrituta. Hemen, Isiltasunaren Akademiako ikasleek entzumen-teknikei eta egoteko moduei lotutako prestakuntza jasotzen dute, kontu handiz diseinatua. Ikasten dute adi egoten soinuaren ñabardura sotilei, ikasten dute frekuentzia eta testura desberdinak bereizten, eta soinu horiek konektatzen beren egoera emozionalekin.

Ikaskuntza-ziklo batean, zuhaitz bat gorpuzten dute eta bolada bat ematen dute lurrian errotuta, euria edanez eta eguzkiaren argian elikagaiak topatuz, besterik ez. Arbolak gorpuzteko curriculum eraldatzaile horren ostean, berriro azaleratzen dira landareen munduaren eta bertan daukaten lekuaren ulerkera sakon batekin. Soinuarekiko sentikortasun berri hori ez dagokio bakarrik entzumenari, ezpada Lurraren eta Unibertsoaren bibrazio-eta energia-alderdiei ere bai. Beren esperientzia errotuaren ostean gorantz egin ahala, hostoen eta haizearen mintzaira bilakatzen da beren komunikazio-bide nagusia.

Ikasle batzuek txorien kantuak edo beste animalia-soinu batzuk jasotzeko aukera izaten dute, baina akademiak ez du kontrolatzen nor jasotzen duen ezagutza hori, edo zergatik. Batzuk, itxura denez, ausaz aukeratuak dira; beste batzuk, aldiz, senez erakartzen ditu ezagutzak. Ausazkotasunaren eta borondate fatidikoaren elementuek iradokitzen digute badela indar ikusezin bat hau dena gidatzen duena. Ezagutza transzendental horri esker partaide izatearen sentipen bat garatzen dute, intimoki, ez-gizakiekin, gizakiaz-bestekoarekin eta gizakiaz-gaindikoarekin.

Beste lengoaia-modu horiekiko sarbidea dutenek gidatzen dute hurrengo hezkuntza-zikloa, espezieen arteko komunikazio berri baterantz. Gainerakoak bideratzen dituzte giza ahotsaren adierazpen-ahalaren esplorazioan: horretarako, ahots-teknika eta -ariketen sorta zabal bat baliatzen dute, hitzezkoak ez diren soinu bidez transmititzen diren ñabardura emozionalak praktikatzeko.

Ahots-gaitasuna esploratzeko moduetako bat: beste animaliak antzeratzea. Ilargirik gabeko gauetan lurraldean barrena sakabanatzen dira eta bokalizazio bidez ebokatzen dituzte beren izatearen barrunbeetan bizi diren soinuak. Espirituek laguntzen diete haragiztatze soniko horretan. Esperientzia horien ostean, asko ez dira komunikatzeko gai izaten bolada batez. Zenbaitek ez du sekula berreskuratzen bere jatorrizko forma: animaliatasunari eusten dio, eta kanpusetik desagertzen da. Ikasle batek gogoan duenez, akademiko ohi bat ikusi zuen otsoekin korrika han urrunean, eta zin egin zuen aho batez intzirika ari zirela espezieen artean.

Hemen, ahotsa esploratzeko orobat baliatzen da osatze kolektiboaren praktika. Entzumen sakoneko ikasle taldeak burrunba-biribiletan elkartzen dira. Burrunbaka hasten dira oso bolumen baxuan, prestatuta ez dagoen belarriak nekez entzuteko eran. Egunaren eguzki-bidearen erdian, ahotsen bolumena igo egiten da, eta oihu komunal bihurtzen. Erresonantzia-une horiei frekuentzia medizinaleko biribil esaten zaie. Saioen ostean, fisikoki gaixo zeudenak erabat suspertzen dira.

Después de pasar tres ciclos del agua aquí, fui testigo de algunas de las metodologías que han garantizado un flujo continuo de desacuerdos armoniosos basados en el cuidado colectivo. Aquí, los alumnos de la Academia del Silencio reciben una formación cuidadosamente diseñada en técnicas de escucha y formas de ser. Aprenden a prestar atención a los sutiles matices del sonido, a distinguir entre distintas frecuencias y texturas, y a conectar estos sonidos con sus propios estados emocionales.

Durante uno de sus ciclos de aprendizaje, encarnan un árbol y pasan una temporada enraizados en la tierra, bebiendo solo el agua de la lluvia y encontrando sus nutrientes a través de la luz solar. Después de este transformador currículo de encarnación arbórea, emergen con una profunda comprensión del mundo vegetal y de su lugar en él. Su nueva sensibilidad al sonido se extiende no solo a lo auditivo, sino también a los aspectos vibratorios y energéticos de la Tierra y el Universo. A medida que se elevan de su experiencia arraigada, el lenguaje de las hojas y del viento se convierte en su principal medio de comunicación.

Algunos estudiantes reciben acceso a los cantos de los pájaros u otros sonidos animales, pero la academia no tiene control sobre quién es seleccionado para recibir este conocimiento o por qué. Algunos son elegidos aparentemente al azar, mientras que otros se sienten atraídos por el conocimiento de forma instintiva. Este elemento de fortuna y de voluntad fatídica sugiere que hay una fuerza invisible que los guía. Un conocimiento trascendental que les permite fomentar íntimamente un sentido de pertenencia con lo no-humano, el otro-que-humano y el más-que-humano.

Quienes tienen acceso a estos otros modos de lenguaje guían el siguiente ciclo de aprendizaje hacia una nueva comunicación interespecies. Conducen a los demás en una exploración del potencial expresivo de la voz humana, empleando una amplia gama de técnicas y ejercicios vocales para practicar los matices emocionales transmitidos a través de los sonidos no verbales.

Una de las formas en que exploran sus habilidades vocales es a través de la imitación de otros animales. Durante las noches sin luna se dispersan por el territorio y evocan mediante vocalizaciones sonidos que viven en lo más profundo de su ser. Los espíritus les ayudan en esta encarnación sónica. Muchos de ellos regresan de estas experiencias incapaces de comunicarse durante un tiempo. Algunos nunca vuelven a recuperar su forma original, deciden permanecer en su animalidad y desaparecen del campus. Un estudiante recuerda cuando vio a un exacadémico corriendo con lobos en la lejanía, y juró que estaban aullando en perfecto unísono entre especies.

Aquí, la voz también se explora a través de la práctica de curación colectiva. Grupos de aprendices de escucha profunda se reúnen en círculos de zumbido. Comienzan a zumbir a un volumen bajo, casi imperceptible al oído no entrenado. Durante la mitad del camino solar del día, el volumen de sus voces se eleva hasta alcanzar un grito comunal. Estos momentos de resonancia son denominados círculos de frecuencia medicinal. Después de las sesiones, aquellos que estaban físicamente enfermos se sienten totalmente recuperados.


Baliatzen dituzten komunikazio-moduen artean, eta nik aztertu dudanaren heinean, distantzia luzeko hizkuntza-modu publiko berri bat nabarmentzen da, txistu bidezkoa. Horrela komunikatzen dira beren lurralde zabalean, eta, horri esker, beren ingurunearen sinfonian parte hartzen dute, eta ikasten dute zer alde dagoen intrusio sonikoaren eta ingurumenarekiko entzumen-koreografiaren artean: praktika hori ohikoagoa da txorien, intsektuen eta narrastien artean.

Hezkuntza-bolada luze baten ostean, hauxe da nire azken ilargi-zikloa IAn. Laster ospatuko dute beren berrogeita hamargarren urteurrena. Beren erritu-zeremonietan, entzumen sakona aktibatzen duen onddo bat hartzen dute, eta aura-bidaia transzendental batean barneratzen ditu. Entzumen-esperientzia horien bitartez, telepatiaz komunikatzen dira, eta elkartruke-modu horrek orobat ematen die aukera beren identitate ugariekin eta iraganeko zein etorkizuneko bizitzekin oihartzun egiteko. Itzuli aurretik izango dudan azken esperientzia da, eta baita beren praktika erradikalei buruz gehien erakusten duenetako bat. Onddoaren eragina amaitu ostean, isiltasun enpatikoan ibiliko dira, beren borondate kolektiboak iraun bitartean, eta hor hainbat ilargi-ziklo pasako dituzte lotan; hala, ametsen gelan osatuko dute beren ikasketa-plana.



Entre las distintas formas de comunicación que practican y que he podido estudiar destaca una nueva forma de lenguaje público a larga distancia mediante silbidos. Comunicarse de este modo a través de su vasto territorio les permite participar en la sinfonía de su entorno, aprendiendo así las diferencias entre la intrusión sónica y la coreografía auditiva con el medio ambiente, una práctica más propia de algunos pájaros, insectos o reptiles.

Después de un largo periodo de aprendizaje, este es mi último ciclo lunar en la AS. Pronto celebrarán su quincuagésimo aniversario. Durante su ceremonia ritual, toman un hongo que activa la escucha profunda, transportándoles en un viaje aural transcendental. Estas experiencias auditivas les permiten comunicarse a través de la telepatía, una forma de intercambio que posibilita también la reverberancia con sus múltiples identidades, con sus vidas pasadas y futuras. Será la última experiencia que comparta antes de mi regreso, y también una de las más reveladoras de sus prácticas radicales. Una vez terminado el efecto fúngico caminarán en silencio empático hasta que dure su voluntad colectiva y ahí dormirán por varios ciclos lunares para completar el plan de estudios en el aula de los sueños.



Nola edo nondik
topatzen dira artea,
kolektibotasuna
eta desira?

erraiak programara sartzeko helburuarekin, betiere 2024an horren tripak zeharkatu dituzten ardatzetatik abiatuta, galdera hori bota diegu programan aritu diren artistei, kolektiboei eta parte-hartzaileei. Nork bere erara erantzun du, bere esperientziatik. Ekarpinak ez dira editatu, proposatzen duenaren azaletik ahalik eta gertuen irakur daitezten.

Para entrar a *erraiak* desde los varios ejes que han recorrido sus tripas en 2024, hemos formulado esta pregunta a las artistas, colectivos y participantes en el programa. Cada una ha respondido a su modo particular y desde su experiencia. Sus aportaciones no han sido editadas, a fin de permitir una lectura lo más cercana a la piel de quien propone.

¿Cómo o desde dónde
se encuentran el arte,
la colectividad y
el deseo?

Aitana Cordero

Siesta kolektiborako partitura Partitura para una siesta colectiva
Erortzen uzte baterako jarraibide-zerrenda Lista de instrucciones para un dejarse caer

Bilatu Buscar
belardi lehor edo umel atsegina césped seco o húmedoagradable,
begiluzerik ez, no mirones,
baina bai zuhaitzak gerizpea, pero sí árboles sombra,
adar sendoekin, inor ez hiltzekoak. con ramas sólidas no asesinas.
Geu hausteko, Para rompernos nosotras,
katarsia nahi baitugu, nahi, porque catarsis queremos,
kanpo sendo bat behar dugu. necesitamos un fuera firme.
Ezinezkoa Imposible,
noski. claro.

Jolasean segi Seguir jugando,
tarotaizarrakplanetaksorginak tarotestrellasplanetasbrujas,
inorekin ez fio baina bateko kopa izan dadila confiar en nadie pero que un as de copas sea,
seguru, seguro,
amodioa iristear. amor que llega.
Zertan, noiz eta nola sinetsi, alutik ateratzen zai- Creer en lo que, cuando y como nos salga del
guna, fede-ekintza da jauzi egitea jasoko zaituzten coño, acto de fe es saltar sin saber que habrá re-
jakin gabe, konfiantza da baietz, cogida, confiar es sí,
galdetzea ziurtasun, preguntar certeza.
Zu zaintzea, Cuidarte
eta ni. y a mí.

Seduzigarriak, Seductibles
seduzitzaileak, seductoras,
maitatzearen gerrilla - gu. guerrilla del querer – Nos.
Gorputza beti irisgarri. Cuerpo accesible siempre.
Errorik galdu gabe Sin perder raíz,
ados, toz. vale, me abro.

Nahiago duzu estalkia ala aire zabalean armiar- ¿Eres más de mantita o de intemperie
mekin? y arañas?

Intimitatea da sar daitezela Intimidad es que entren
hatsak pilpirak testurak lotsa, alientos palpitaciones texturas vergüenza,
eta entrenatzea nola ez joan, entrenar no irse,

Onartzea makarra tabakoa	Aceptar legaña tabaco
bizarra adurra usaina kobra keinu txarra zauria	barba olor cobra mal gesto herida
topaketa baimendu,	permitirse encuentro,
hurbil desberdinak.	y distintos cercas.
Intimitatea da sartu elkarren begietan besapeetan	Intimar es penetrarnos los ojos las axilas
poltsikoetan	los bolsillos
arnastu elkarren ahoak	respirarnos las bocas
eta ez jakin,	y los no saber,
itxaronaldia	la espera,
ezer ez,	un nada,
trukatu sekretuak altxorrak	compartir secretos, tesoros,
errautsak eta hondakinak,	cenizas y ruinas.
zure azala nire burko eta lurreratze-pista.	Tu piel mi almohada y pista de aterrizaje.
Bat ez egjin,	No coincidir,
erresistentzia eta duda	resistencia y duda
balekoak dira orobat	valen también,
elkarrengana talka egite honetan.	en este colisionarnos.
Korrika beldurrik gabe zugana	Correr sin miedo hacia ti
ezein hormak kolpatuko ez nauelakoan,	como si no existieran pared ni golpe,
eta kriston ostia,	y hostión,
noski	claro,
espero gabeko ukondoa,	codo inesperado,
asko sentitzea,	sentirlo mucho,
berradostea,	re(a)cuerdos,
gero lo egiteko proiektu bateratuak gehiago	un proyecto conjunto de dormir después, nos
erakartzen gaitu banatzeak baino,	atrae más que un separarnos ahora. Seguimos,
eta txispun magia gara.	y chimpun magia somos.
Erortzen utzi,	Dejarnos caer,
harrera ergonomikoa iritsiera biguna lurrera,	ergonómica recepción llegada blandita al suelo.
Nire gorputza beste gorputz batzuekin	Mi cuerpo con otros cuerpos,
sentitzea zurepostura nireposturara itsasten	sentir tu postura pegarse a mi postura
zure hankak oraindik ez dit ematen	tu pierna que aún se resiste a darme
bere hanka-zama,	su peso de pierna,
begiak ixten ditugu	cerramos los ojos
egunaren segidarantz goaz,	vamos hacia el resto del día,
lo hartzen duzu	te duermes
eta amets egiten dugu.	y soñamos.
Eta txispun magia gara.	Y chimpun magia somos.

[50]

Nola edo nondik topatzen dira artea, kolektibotasuna eta desira?

02



plazeratu.klub
Xerraiak


<https://open.spotify.com/playlist/1kSqh7cUIMlh-feEVT1z9f6?si=18d0fca1406e4aba>

03

Élan D'Orphium


Gatazka armatua

Conflicto armado



Wolf Vostell.
B 52 Lipstick Bomber.
1968





Eta igeri egitea maite genuen,





igeri egitea gu ginelako.


04 **Maidier
Garayo**



Y nosotras amábamos nadar



porque nadar éramos nosotras.



2023

Laura Muelas

Egin dezagun zerbait bizi osorakoa; adibidez, tatuaje bat. Lerroz osatutako tatuaje bat: hasi bere sorbaldan eta zure izterrean buka, tartean zure eskumuturretik pasa, bere oin-zolatik. Tinta eta azalezko nahas-mahas bat, gure eguneroko bizitzen mapa bat marrazten duena, eguneroko bizitza huts direla. Bota kartak, ziztatu besapea, hiruko kopak konbokatzen gaitu. Tori, amuleto bat egin dizut berbena eta ez kai pusketekin, babes zaitzan pentsamendu gaiztoetatik eta sasoiko birusetatik. Puntada bakoitzarekin berridazten dugu topaketa, historia bat sortzen, festa bat antolatzen. Oraindik zikintzen ez duen tintaren aurretik existitzen gara, orratzaren puntaraino doan bidaian, eta haragian inprimatzen dituen forma kontrolatuetan gainezka egiten dugu. Azal-paisaia konpartitua. Egin dezagun zerbait erradikala; adibidez, tatuaje bat.

Hagamos algo para toda la vida, por ejemplo, un tatuaje. Un tatuaje de líneas que empieza en su hombro y acaba en tu muslo, pasa por mi muñeca, por su planta del pie. Una maraña de tinta y piel que dibuja un mapa de nuestras vidas cotidianas solo siendo vidas cotidianas. Échame las cartas, pínchame en la axila, el tres de copas nos convoca. Toma, te he hecho un amuleto con trizas de verbena y tomillo, para que te proteja de los malos pensamientos y los virus estacionales. Con cada puntada reescribimos el encuentro, creamos una historia, montamos una fiesta. Preexistimos en la tinta que todavía no mancha, en el trayecto que recorre hasta la punta de la aguja, y nos desbordamos en las formas controladas que imprime en la carne. Un paisaje cutáneo compartido. Hagamos algo radical, por ejemplo, un tatuaje.

Black Power Pamplona

06

Batera bizi ditugun bizipen eta esperientzietan daude artea, kolektibotasuna eta desira. Esperientzien bitartez, pertsonak hurbildu egiten dira, loturak eta kidetasuna sortuz, eta horrek elikatu egiten du bizi duguna komunikatzeko gogoia. Artearen bidez, desirak adierazten dira, esperientziak lotzen, eta identitate kolektibo bat eraikitzen da. Arteak, oro har, desira komunak bideratzen ditu eta komunitate-zentzua indartzen du.

El arte, la colectividad y el deseo se encuentran en las vivencias y experiencias compartidas. Las experiencias acercan a las personas, creando vínculos y un sentido de pertenencia que alimenta el deseo de comunicar lo que se vive. A través del arte, se expresan deseos, se conectan experiencias y se construye una identidad colectiva. En conjunto, el arte canaliza deseos comunes y fortalece el sentido de comunidad.

Ana Laura Duarte

Ahamen batean.
mihi batean, dastatzen duenean, hizkuntza arrotzetan mintzatzen denean,

eskuekin jan eta hatzak miazkatzean,
ogia zatitu eta
albokoari eskaintzean zapore berri bat deskubritu
osteko pupila handituetan
gustuan eta disgustuan
erresistentzia gisa gozatzean.

Hartzitzen ditut sagarrak eta beren egitura aldatzen da,
azidotasun gailentzen.

Hartzitzen ditut berakatzak eztiarekin eta pasta bat egi-
ten dut kakahuete-gurinarekin, zeren begien bistakoa dirudi gozoa
eta gazia nahasteak, baina oreka zaila da, gauzak bezala, gu geu
bezala.

Ohetxo batzuk egin nituen ore filoarekin, masa krokanteen
mundutik nator eta.

Masa bat hausten deneko soinuak biziberritzen nau, sentit-
zen dut kruntxiak esaten didala gauzak haustea ez dagoela hain gaizki.

Mendian salvia zegoen eta hostoak frijitu nituen poliki-poliki.

Salbiak "sendatua izan" esan nahi du, eta babestu egiten
gaitu, gainetik bota nion gatzarekin.

Ahamen bizi bat da,

hartzidurak daude bertan,
komunitatea dago.

En un bocado.

En una lengua que cuando saborea, habla otros idiomas ajenos al
propio,

en comer con las manos
y chuparse los dedos
en trocear el pan y ofrecerle a quien tengas al lado en las
pupilas dilatadas al descubrir un sabor nuevo
en el gusto y el disgusto
en gozar como resistencia.

Fermento manzanas y su estructura cambia, la acidez
predomina.

Fermento ajos con miel y hago una pasta junto con
mantequilla de cacahuets, porque mezclar sabores dulces con
salados parece evidente, pero el equilibrio es bastante complejo,
como las cosas, como nosotras.

Hice unas camitas de masa filo porque vengo del mundo
de las masas crocantes.

El sonido del quiebre de una masa me da vida, siento que
el crunchi me dice que romper cosas no está tan mal.

En el monte había salvia y freí sus hojas muy despacito.
Salvia que quiere decir "ser curada" y que nos protege
junto con la sal que le eché por encima.

Es un bocado vivo,

hay fermentos en él,
hay comunidad

DPVillanueva

08

Beharbada bestetasuna bizitzeko eta norbera den horren ingeradak hedatzeko desira batetik.

Dimentsio afektibo batetik, interes komun bidez, hitze-kin, keinuekin... halako espazioetan.

Prozesu bat, batzuetan deserosoa, geure ziurtasun ga-beziekin topo egiteko... geure konpartitzeko zailtasunekin, besteen aurrean gure buruari den hori izaten uzteko zailtasunekin... zaur-garritasunak interesgarri bihurtzen du prozesua, nahiz eta izua ere sor dezakeen (...). Kolektiboa ulertzeko, zaurgarritasun horiek erakutsi behar dira, zerbait ukitzaila bihur dadin eta zentzua har dezan.

Honek guztiak modu desberdinean lotzen gaitu, bakoitza zertan dabilen, eta uneko beharren arabera. Harreman hau, beste guztiak bezala, eraldatu egiten da, eta asko eragiten dio kontestuak. Eta beti eragiten diguten (...) kapitalismoa, normatibotasuna... agertzen dira, hor daude... soinean daramatzagulako... eta inkongruente bihurtzen gara tarteka. Guztiaren bitartekari izan nahi duen bulkada kapitalista eta bestelako desira batzuk bereizi, zabaltzen gaituztenak, proposatzen dutenak, izendaezin egingo gaituztenak, konpexuago... eta existitu nahi dugun espazioei eutsi.

Quizás desde un deseo por experimentar la otredad y expandir los contornos de lo que una es.

Desde una dimensión afectiva, a través de intereses compartidos, con palabras, con gestos..., en espacios como este.

Un proceso a veces incómodo donde encontrarnos con nuestras inseguridades..., con nuestras dificultades para compartir, para dejarnos ser en presencia de otros... La vulnerabilidad hace el proceso interesante, aunque también pueda producir cierto pánico. (...) Entender que lo colectivo necesita de la exposición de esas vulnerabilidades para ser algo que devenga tocante y que haga sentido.

Todo esto, que nos involucra de manera diferente, dependiendo de en qué ande cada una y de cuáles sean las necesidades del momento. Una relación que como todas se transforma y que también está muy influenciada por los contextos en que ocurre. Y siempre intervenidas (...) de capitalismo, normatividad... Que aparecen, que están... porque los llevamos puestos... Y devenimos incongruentes por momentos. Discernir entre el impulso capitalista, que todo lo quiere mediar, y otro tipo de deseos que amplíen, que propongan, que nos hagan innombrables, más complejas..., y sustentar espacios en los que podamos existir.

Uxue Lotero Torres

10

bakarrik ez egoteagatik bakarrik eta jakin nahi izateagatik
zer liburu daukazuen mesanotxean irakur ditzazuen niretzat eta
gero nik zuentzat ahots betez irakurri do bat bular osoz do bat beste
edozein testu non zuengan pentsatzen nuen iraun zuen bitartean

bakarrik ez egoteagatik bakarrik eta beti zuekin eta hu-
rrena igo gaitezen paretetan gora huntza nola edo margotu paretak
gure izenekin

maitea

puntuazio-markei uko egin guztiei salbu eta
hiru puntuei ... eta gutxienez hiru komari segidan „„„„„ intonazioa
aska dadila bien bitartean gu saiatzen gara

ez zuei nik ez dizuet uko egiten ez naiz ezkututzen behar
zaituztet egiten dugun guztia egiten dudana guretzat da eta gure
zelula ehun eta mintzentzat eta listu- malko- irazte-guruinentzat eta
zuen ilearentzat eta zuen aurpegi belarri eta azalenzat eta plakak
nola plaka tektonikoak osorik bibra dezala azalera honek

nik nahi dut beti bibra dezagun

por no estar sola no estar sola y querer saber qué libros
hay en vuestras mesillas que los leáis para mí y después yo leer para
vosotras con la voz plena como cantando un do de pecho un do5
cualquier otro texto en el que pensaba en vosotras mientras duró

por no estar sola no estar sola y siempre con vosotras y
lo próximo que hagamos sea subir por las paredes como hiedras o
pintar las paredes con nuestros nombres

mi amor

renunciar a los signos de puntuación a todos
ellos menos a los puntos suspensivos ... y a las mínimo tres comas
seguidas „„„„„ que la entonación se emancipe mientras nosotras lo
vamos intentando

no a vosotras no yo no renuncio no me escondo os nece-
sito todo lo que hacemos lo que hago es para nosotras y nuestras
células tejidos y membranas y glándulas salivares lacrimógenas
excretoras y para vuestro pelo y vuestra cara oídos y pieles y como
placa placas tectónicas que vibre al completo toda esta superficie
yo quiero que siempre vibremos

Las Nenas

Plastikozko arima bat daukat	Tengo un alma de plástico
Emakume bat makillatuta	Mujer maquillada
oso makillatuta	muy maquillada
Aro erraldoiak	Con unos aros gigantes
eta mototsa goi-goian	y una coleta alta
Bikini fina soilik	Bikini finito
gaizki ikusita dagoena estaltzeko	solo lo que está mal visto
Dantzan kantuz desafinatuta	Baila canta desafiando
Guarrarena egiten du maite	Hace la guarra
du guarra bat izatea	le encanta ser la guarra
Guarrena da txotxoa ukitzen du	Es la más guarra se toca el chocho
Gero eta gorago super goian	Cada vez más arriba arribísima
Orgasmoan amaitzen du	Termina en orgasmo
Zutik alboetara begiratzen du	Parada mira a los lados
bere buruari ere bai	se mira a sí misma
Brillantiazko kubo bat hartu	Coge un cubo de brillantina
eta botaka egiten du	vomita en él
Toallatxo bat hartu	Coge una toallita quitar
guarra-arrastoak kendu	los restos de guarra
Belaunikatu eta otoitz egiten hasten da	Se pone de rodillas y reza
Egin nahi dut dantzan zoro distira ilean	Quiero bailar loca brillo en el pelo
Izan nahi dut trantzea estiloarekin	Quiero ser el trance
botaka egin	vomitara con estilo
Izan nahi dut mitin bat bizkarra zuzen	Quiero ser un mitin espalda estirada
errealitate distorsionatua hazkuntza pertsonala	realidad distorsionada crecimiento personal

Izan nahi dut beste pertsona baten kopia merkea	Quiero ser una copia barata de otra persona
Plastikozko arima dut zer axola du	Tengo un alma de plástico qué más da
Metabolismo argala ohitura onak	Metabolismo delgado buenos hábitos
Putatxo festazalea miau	Putilla fiesterera miau
Biribil zoriontsuak apeta txikiak	Círculos felices pequeños caprichos
Giro osasuntsuak zigarroak gosaldu	Ambientes sanos desayunar cigarrillos
Praka emakumeak gizonak galtzak	Pantalón mujeres hombres pantalones
Ile lisoa azala kuadro bat	Cabello liso piel cuadro
Titiak lehen lirain orain	Tetas antes delgada ahora
Emakumeak gizonak denak egarri	Mujer hombre todos sedientos
Depresioa lasaigarriak	Depresión sedantes
eskerrik asko prozesua	gracias proceso
Sentsazioak asmatzen ditugu nik uste	Inventamos sensaciones pienso
Serotonina zuek inguratu bidaiak infernura	Serotonina rodearos viajes al infierno
Franco deika bere burua zaindu errezatu	Franco llama se cuida reza
Egin nahi dut dantzan zoro distira ilean	Quiero bailar loca brillo en el pelo
Izan nahi dut trantzea	Quiero ser el trance
estiloarekin botaka egin	vomitara con estilo
Izan nahi dut mitin bat bizkarra zuzen	Quiero ser un mitin espalda estirada
errealitate distorsionatua hazkuntza pertsonala	Realidad distorsionada crecimiento personal
Izan nahi dut	Quiero ser
beste pertsona baten kopia merkea	una copia barata de otra persona
Plastikozko arima dut zer axola du	Tengo un alma de plástico qué más da





[edizioa eta koordinazioa
/ edición y coordinación]

Lara Molina

[argitalpen-lankidetzeta /
colaboración editorial]

Leire San Martín

[testuak / textos]

Romina Casile

Ce Quimera -

txe roimeser

Institut for

Postnatural Studies

Elena Olave

Danele Sarriugarte

Perla Zúñiga

[ekarpenak
/ contribuciones]

Aitana Cordero

Black Power

Pamplona

DPVillanueva

Elan D'Orphium

Ana Laura Duarte

Maidier Garayo

Las Nenas

Uxue Lotero Torres

Pablo Marte

Laura Muelas

plazeratu.klub

[diseinu / diseño]

Naiara Bordería

Aida Zabala

[argazkiak / fotografías]

Pablo Marte

[euskarazko itzulpena

/ traducción al euskera]

Danele Sarriugarte

[testuen berrikuspena /

revisión de textos]

Javier García Clavel

[inprimategia / imprenta]

Gráficas Alzate

[ISBN] 978-84-09-67546-3

www.erraiak.com

Argitalpen hau Uharteko Arte Garaikideko Zentroaren Arte Plastiko eta Buzilagotarako Laguntza Programari esker egin da, Nafarroako Gobernuko Kultura Sailearen lankidetzan, baita Nafarroako Navarra Fundazioaren eta La Caixa Fundazioaren Innova Programari eta Inueko Udalarari esker ere.

Esta publicación ha sido realizada gracias al Programa de Ayudas a las Artes Plásticas y Visuales del Centro de Arte Contemporáneo de Huarte en colaboración con el Departamento de Cultura del Gobierno de Navarra, así como al Programa Innova de la Fundación Caja Navarra y Fundación la Caixa, y al Ayuntamiento de Pamplona.